

DATORRENA

«La tortura existeix i té responsables» IRATXE URIZAR ➤ 3

ANALISIA

Nafarroa: noiz erortzen da erregimen bat? FLOREN AOIZ MONREAL ➤ 16

2014ko azaroaren 29a | VIII. urtea • 393. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZER JANA IZAN DEZATEN

➤ 12 Raul BOGAJO | ARGAKZI PRESS



4

UKIP alderdi xenofobo eta eskuindarraren indarra 04


Sermoia Estrasburgon 07

Perutarren esterilizazioak salatzen dituen filma 08

Elikagai bankuak urteko bilketaren atarian 12



8



22

Nafarroa, erregimen baten erorketa 16

e.lkarrizketa: Ion Markel Ormazabal 22

Nekazaritzaren «iraultza berdearen» itzal luzea 26

In Fraganti: Diana Cantero 28



16



28



SINADURAK:

- 03 **Iratxe Urizar:** «La tortura existeix i té responsables»
10 **Unai Fernandez de Betoño:** Caro Baroja hirigile
11 **Ramon Sola:** Nafarroako «abertzale berriei» kasu
19 **Oihane Larretxea:** Kontraesanak
20 **Gorka Zozia:** Bahe beharrean
21 **Iker Barandiaran:** Sorkuntza plazaratzeko erakusleihoak babestu
25 **Amaia Ballesteros**
26 **Maider Iantzi:** Elektrizitatea
31 **Iratxe Esnaola:** Spotify: artistak aurka



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZA
GIBIZKO LAGUNTZA ERKUNTZA

{ datorrena } **Iratxe Urizar**

«La tortura existeix i té responsables»

Errealitate bat ukatzeak ez du errealitate hori desagerrarazten. Hala, torturaren ukazioaren aurka lanean dabiltzan 50 elkarteak baino gehiagok osatzen dute Torturaren Prebentziorako eta Salaketarako Estatuko Koordinakundea, zeinak pasa den asteburuan lanean emandako hamar urteak gogoratu zituen Bartzelonan antolatutako jardunaldietan. Urtebetetze, ospakizun eta aldarrikapen unea gazi-gozoa izan zen: Koordinakundea existitzea bera seinale txarra bada ere (tortura baden adierazgarri), lanean aurrera egiteko gogoia izatea ere poztekoa da, orain dela hamar urteko aurpegi berdinekin baina baita denbora honetan guztian gehitutako hainbat aurpegi gazterekin ere.

Hamar urte dira jada torturaren arloan lanean ari ziren hainbat elkarteak Estatu mailako plataforma bat eratzearen beharra ikusi zutenetik; izan ere, ezin ahaztu horrelako elkarlan egitasmoak beti beharretik abiatzen direla. Garai hartan, Gobernu espainiarra, beste behin ere, torturaren prebentziorako nazioarteko bitarteko bat sinatzera zihoan (kasu hartan, "Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Nazio Batuen konbentzioaren hautazko protokoloa"), eta, beraz, ez zen geldi eta isilik gelditzeko unea, besterik gabe Estatuak beste behin ere nazioartean bere burua nola zuritzen zuen ikusten. Bat, bi, hiru... 50 taldek osatzen dute Koordinakundea egun, eta hautazko protokoloa 2005ean sinatu eta berretsi zuen Estatuak; torturaren prebentziorako arduradun gisa Mugica Herzog jarri zuten. Aurretik egiteko zegoen lanak ezin izan zuen adierazle hobeagorik izan.

Ordutik, Euskal Herriko elkarteak zein Estatuko beste elkarte batzuek tortura salaketak bidali dituzte Koordinakundera, urteko txostena aurkeztu delarik urtez urte ordutik, ahotsa emanez isilarazi nahi izan den errealitate bati: azken hamar urteotan 6.621 lagunek salatu dituzte tortura eta/edo tratu txarrak Estatuan, horietatik 1.032 pertsona migratzaileak eta 122 adingabeak. Denbora honetan, gainera, 883 pertsona hil dira Estatuaren zaintzapean zirela, horietatik 15 adingabeak.

Minarekin egunero lan egitea gogorra izanik ere, asko izan dira urteotan jasotako fruituak eta izandako lorpenak.

Horrelako momentuak denbora honetan guztian lanean aritu diren hamaika boluntarioak gogoratzeko ere badira; ezin ahaztu koordinakunde moduan egindako lehendabiziko jardunaldiak, Nazio Batuetako torturaren gaineko konfidentzialari izandako Theo van Boven herbeheretarraren parte hartzearekin. Australiatik heldutako kazetari bat ere izan zen jardunaldiok grabatzen, eta herrialde horretako telebista publikorako egindako dokumentalean garaiko Barne ministroaren bigarrenak esandako «Amata ezazu kamera hori une batez» esaldi ospetsua entzun ahal izan zen... Telebista kate horretako langile batek urteak zeramatzen euskal herritarren tortura testigantza latzak ingelesera boluntarioki itzultzen, eta kate horretako zuzendariak torturaren gaiak arreta behar zuela erabaki zuen. Horrela izaten dira gauzak askotan, herritarrek, ahoz ahokoari eta eguneroko beraien

Azken hamar urteotan lan handia egin da tortura ikusarazten eta salatzen. Orain lanaren bigarren zatira joan behar dugu urgentziaz, denon artean lortuko dugun helburua gauzatzeko. Izan ere, tortura egon badago, bai, eta baditu erantzuleak

lanari esker, indar handia dute; pentsa, gauzak aldatzeko gai era izan badira. Ahaztu egiten zaigu batzuetan hori.

Baina aipatu berri dugunaren oinarria argi utzi zuen Jorge del Cura Koordinakundearen bozeramaileak Bartzelonako jardunaldietako bukaerako lehen balorazioan: «Egiten dugun lan guztia, torturak salatzea ausartu diren horien amore eta duintasunari esker da posible». Hori gabe salaketa lana egitea ezinezkoa da, eta horri esker eta horregatik, lanean tinko jarraitzeko konpromiso irmoa hartu zen.

Errealitate bat ukatzeak ez du berau desagerrarazten. Jardunaldien izenburua, argia oso: «La tortura existeix i té responsables». Azken hamar urteotan tortura ikusarazten eta salatzen lan handia egin da. Orain jardunaldien izenburuko bigarren zatira joan behar dugu urgentziaz, denon artean lortuko dugun helburua gauzatzeko. Izan ere, tortura egon badago, bai, eta baditu erantzuleak. •

BRITAINIARRAK NORA EZEAN

UKIP alderdi xenofobo eta eskuindarrak hauteskundeak irabazten jarraitzen du

 POLITIKA / Soledad GALIANA

Europar hauteskundeetan lehen indarra izan zen Britainia Handian UKIP. Ordutik hona Westminsterren bete behar izan diren bi eserlekuak eskuratu ditu UKIP alderdi xenofobo eta eskuin muturrekoak. 2015eko hauteskunde orokorren atarian alderdi horren gorakadaren atzean zer dagoen oso hitz gutxitan laburbil daiteke: britainiarrak nora ezean daude.

Nigel Farage buru duen alderdi xenofobo eta eskuin muturrekoak, Erre-suma Batuaren Independentziaren Alderdiak alegia (UKIP), ez du atzera egiteko inolako asmorik. Aurtengo Europar Batasuneko hauteskundeetan lortu zituen emaitza his-

torikoak ez zirela egun bateko kontua izan erakutsi du. Orduko hartan Britainia Handiko alderdi bozkatuena izan zen, botoen %28rekin. 2009ko emaitzak bikoizteaz gain, Estrasburgoko Parlamentuan 24 eserleku eskuratu zituen.

Londresko Parlamenturako eserlekuak lortzeko aukera ematen zuten azken bi hauteskun-

deak ere UKIP berak irabazi ditu, bi legebiltzarkide lortuz Westminsterren. Datorren urteko hauteskunde orokorrei begira, beraz, lurrikara politiko bat izatearen beldur dira asko.

Garaipenak garaipen, izua baino amorrua sortzen du alderdiak jende askorengan. Azken inkesten arabera, biztanleen %25ek ez luke inoiz UKIP alderdiari botoa eman dion norbaitekin harreman normalizaturik izango. Nolatan azaldu, bada, alderdia britainiar hautesleen artean lortzen ari den gorakada?

GERO ETA ESQUINERANTZ

Alde batetik, eskuinerantz jo du azken hamarkadatan Britainia Handiko politikak. David Cameronek gidatzen duen alderdi kontserbadorearen Gobernua Margaret Thatcherren garai gogorak berreskuratzen saiatzen ari da, neoliberalismoaren izenean pribatizazioak bultzatuz, murrizke-

Nigel Farage, UKIP alderdiko burua.
Ben STANSALL / AFP



ten izenean gizarte laguntzak kenduz, segurtasun santuaren izenean giza eskubideak urratuz, eta, azkenik, Europaren aurkako jarrera ardatz nagusi bilakatuz.

Erantzukizuna ez da soil-soilik *tory*-ena. Liberal-demokratek Cameronen Gobernuan parte hartzea erabaki zuten, bere ohiko kideak laboristak diren arren. Erabaki horrek umezurtz utzi ditu liberalei botoa eman izan dioten herritar asko. Azken europar hauteskundeetan bozen %7 baina ez zituen eskuratu Nick Clegg lehen ministrordearen alderdiak eta Estrasburgon zituen 11 eserlekuetatik bat baino ez du mantendu.

Baina, dudarik gabe, Britainia Handiko hautesleen artean sumatzen den ezinegonaren ardurarik nagusia laboristek dute, batik bat Ed Miliband alderdiburuak. Sindikatuek bultzatu zuten boterera Miliband eta berak Tony Blairren «laborismo berriarekin» apurtzeko konpromisoa hartu zuen. Aldiz, hautatua izan bezain laster agindutakoa ahaztu eta laborismoaren gailurrera iristen lagundu ziotenen aurka ekin zion, sindikatuen indarra ahultzea helburu eta Blairren «hirugarren bidearen» bertsio propioa saldu asmoz.

Egun historikoki laboristak babestu dituzten herritar ugari UKIP alderdiari ematen diote botoa eta horrek kezka sortu behar luke laborismoaren baitan. Izan ere, langile ugari *stockbroker* bat buru duen alderdi eskuindar bati botoa emateak asko esaten du laborismoak bizi duen nora ezaren inguruan. Adituen ustez, hurrengo hauteskundeetan UKIPek bereganatuko dituen hamar barrutietatik zortzi laboristak izan dira orain artean. Ez da harritzekoa, beraz, Milibanden lidergoa kolokan egotea.

ALTERNATIBA GOSE

Politikak eskuinerantz jo badu ere, jendea alternatiba gose da. 2010eko hauteskundeetan emaitzak kontserbadoreek espero zutenak baino txarragoak izan ziren. Gehiengo osoa lortzea espero zuten, baina liberalak izan ziren orduan aldaketa gose horren onuradunak. Horrela,



Mark Reckless UKIP alderdiko diputatu berria Westminsterren, Margaret Thatcherren irudia ondoan duela.

Leon NEAL | AFP

bada, hautesleek betiko bipartidismoarekin amaitzeko gogoa erakutsi zuten. 1972an britainiarren %28k soilik uste zuen politikarien eta herrialdearen interesak bat zetozela. Egun %10ek baino ez du horretan sinesten.

Politikarien onarpen maila gero eta baxuagoa da, baita Nigel Farage berarena ere. Hala ere, liberalek ez dute alternatibarako zantzurik erakutsi, eta, hala, hautesleek UKIPeri botoa emanez adierazten dute alderdi tradizionaletik haserrea. 2013ko urtariletik hona hiru-koiztu egin da boto transferentzia laborismotik UKIPera. Hala ere, are gehiago dira *tory* bozkatzetik eskuin muturrerako bidea egin dutenak (%36).

BADAGO BESTE BIDERIK

Dena den, badago eskuinerantz jotzeko asmoa ez duenik ere Britainia Handian. Inkesten arabera, 2015eko hauteskundeetan berdeei botoa emango dieten %80 beste alderdietatik iritsiko dira, gehienak Alderdi Liberaletik.

Eskozian, aldiz, gauzak oso bestelakoak dira. Herritarren %65ek ondo hartu dute Nicola Sturgeon lehen ministroaren kargu hartzea eta Alex Salmond-ekiko miresmena igo egin da, independentziarako erreferenduma galdu izanak etsipena eragin duen arren.

SNP alderdiak lehen indarra izaten jarraitzen du eta inkesten arabera emaitza izugarriak lortuko ditu. Egun sei eserleku ditu Westminsterren eta adituen ustez 50 inguru lortuko ditu, laboristen bizkar gainean lortu ere, azken horiek Eskoziaren independentziaren aurka Gobernuarekin bat egin izana larrutik ordainduko baitute.

Alderdi tradizionalak izugarrizko beldurra diote hautesleen konfiantza berreskuratu ahal izateko egin behar duten aldaketari, eta, hala, barne erreforma sakon bati ekin ordez hautesleak beldurraraztea erabaki dute. Horrela bada, Farageren taktika, beldurra hedatzearena, bere egin dute. Laboristen hitzetan, eskuinak irabaziz gero osasun publikoa amaitu egingo da. *Tory*-ek krisi ekonomikoaren



mamua ateratzen dute laboristen garaipen baten aurrean. UKIPek berak errumaniarrak tropelean Britainia Handia inbaditzeko prest daudela ohartarazten du behin eta berriz.

Izan ere, laborista eta kontserbadoreak bere diskurtsora erakartzera lortu du UKIPek. Faragek, nola ez, bere zelaian jokatzeari gustuko eta bere mezua, Europaren aurkakoa eta etorkinak kriminalizatzen dituen, kontserbadoreek ere bereganatzea lortu du. Are gehiago, Britainia Handia Europar Batasunean jarraitzearen alde egonik ere, bere alderdiak etorkinen auzian duen politika «aztertu beharra» onartu du Miliband laboristen buruak. UKIPek lapurtutako botoak berreskuratzeko prest al daude laborista eta kontserbadoreak xenofobiaren mamua astintzeko?

DENAK ANTZERAKOAK

Dena den, argi dago UKIP alderdia ez dela behin eta berriz kritikatzeko dituen alderdi tradizionalisten alternatiba. Gogoratu behar da Londresko Parlamenturako hautatu berri dituzten alderdiaren diputatuak, Douglas

Carswell eta Mark Reckless, *tory*-ak zirela atzora arte. Azken finean, Farageren alderdiaren jatorria kontserbadoreen arteko lisakarretan dago. *Tory*-en barnean Europar Batasunarekiko harremanek, sexu berekoen arteko ezkontzek eta klima aldaketak eztabaidak sortu izan ditu, eta sortzen ditu oraindik, eta zirrikitu horietatik jaio zen UKIP. Horrela, bada, UKIPen politika ez da batere berritzailea. Aitzitik, British National Party (BNP) alderdi faxistaren islatzat jo daiteke.

Adibide gisa, astearte honetan egindako elkarrizketa batean, Reckless diputatuak argi eta garbi azaldu zuen Britainia Handia Europar Batasunetik ateratzeak Europako etorkinak euren herrialdetara bidaltzea ahalbidetuko lukeela. Adierazpenok sekulako lurrikara eragin dute eta bihar-munean Farage berak ukatu behar izan du asmo horiek alderdiaren planen barnean daudenik. Reckless, ordea, bere harridura agertu du Farage esandakoaren aurrean eta UKIP-en baitan etorkinei buruzko politika egun bate-tik bestera aldatu egiten dela «ohartarazi» du, berak esanda-

koa Steven Wolfe alderdiko Im-migrazio arduradunak berari azaldutakoa dela ziurtatu ondoren. Eta ondotoxo daki diputatu berriak zeri buruz ari den. Izan ere, bere aldeko kanpainari babesa eman ziotenen artean Lehenengo Britainia Handia eskuin muturreko taldea dago, BNP alderdi faxistako kide batzuek 2011. urtean sortu zutena eta musulmanekiko gorrotoagatik tamalez oso ezaguna dena.

Arazoa, ordea, ez da hori. Kontua da kontserbadoreek zein laboristek ez dituztela behar beste edo beharrezkoa litzatekeen ir-motasunarekin salatzen horre-

David Cameron lehen ministro kontserbadorea.
Rebecca NADEN | AFP

Jatorriz kontserbadoreak izan dira orain artean UKIPeko boto-emaileak, baina azkenaldian langileen hauteskunde barrutietan ere gailentzen ari da eskuin muturra laboristen nora eza lagun

Jendeak bipartidismotik at alternatiba bat eskatzen du. Eta beste aukerarik ikusten ez duenez, UKIP xenofoboari ematen dio botoa alderdiaren mezu sinpleek erakarrita

lako adierazpenak. UKIPek ultraeskuinarekin dituen ageriko harreman estuen inguruan ere ez dute txintik esaten.

Zergatik apaltasun hori? Kontserbadoreen kasuan agian UKIPera “desertore” gehiago joango ote diren beldur direlako. Alderdi horren eta *tory*-en artean ez baitago desberdintasun handirik. Hori bai, *tory*-ek ez diote UKIP alderdiari sekulan irabaziko Europaren aurka hitz egiterakoan edota xenofoboa goa zein den erabakitzeke lasterketa dialektiko batean.

Gainontzean, bi alderdiok bat datoz auzi ugaritan, esaterako, NHS Britainia Handiko Osasun Publikoa pribatizatzeko asmoan. Biek ala biek kontuan izan beharko lukete, hala ere, hautesleek gogor zigortuko luketela instituzio historiko hori ukitzen auzartuko litzatekeen edozein alderdi. Gauza gutxi dituzte egun britainiarrek harro izateko, eta NHS da gutxi horietariko bat, kontserbadoreek beraien lar-rutan ezagutu duten moduan.

IPAR IRLANDA

Zer eragin izango luke Ipar Irlandako bake prozesuan UKIP alderdiak Londresko Gobernua eskuratzeko balu, edota gutxienez gobernu kide bilakatuko balitz? UKIP alderdi unionista da, eta harrotasunez aldarrikatzen du gainera. Aurreikus daiteke, beraz, zein izango litzatekeen bere jarrera Irlandako auzian. Zehazki, Britainia Handia Europar Batasunetik atera ondoren, Ipar eta Hego Irlandaren arteko mugak berrezarri beharko liratekeela defendatzen du, eta horrek, noski, Irlanda osorako politika komunaren ahultzea edo desager-tzea suposatuko luke.

Egitasmo horrekin, Faragek bere alderdia hedatu nahi du Ipar Irlandan, eta badu kideak non bilatu: alderdi unionistengan hain zuzen ere. UKIPek Belfasten duen arduraduna David McNarry UUPko diputatu ohia da. Bere iritziz Irlandaren autodeterminazioaren alde daudenak gaizkileak dira. Udaleko bilerak kubatak edaten igarotzeagatik ezaguna zen DUPeko zinegotzi ohi bat ere UKIPera joan da egunotan...



Remy DE LA MAUVINIERE | AFP



IKUSMIRA

AITA SANTUAREN SERMOIA ESTRASBURGOKO DIPUTATUEI

Astearteari igande itxura hartu diote Estrasburgoko eu-rodiputatuak. Sekulako ikusmina sortu du Francisco aita santuaren bisitak. Jorge Mario Bergoglio argentinarren sermoiak aurreikuspenak bete ditu gainera, eta, bestek beste, Mediterraneo itsasoa etorkinen kanposantu bilakatzen ari dela salatu eta politika neoliberalen aurka hitz

egin du. Dena den, eta mezatan gertatu ohi den bezala, entzuleek ezentzunarena egin dute. Ezin da bestela ulertu murrizketa ekonomiko eta sozialak agintzen dituzten eta etorkinen tragediaren erantzule zuzen diren legebiltzarkideek sermolariari horrelako txalo zaparrada eskaintzea. Mezuarekin bat egiten dutenen artean, gainera, batzuk ez dira mezetara joan, beste batzuek Eliza katolikoak emakumearekiko duen jarrera salatzekeo protesta gisa elizatik alde egin dute eta bada aita santua goraiatu duenik ere. Europa «zaharkitu» egin dela deitoratu duen aita santua. Bera, Eliza katolikoa eta mezak gaztetasuna ikur bailira bezala. Zozoak beleari...

Dabid LAZKANOTURBURU

ESTERILIZAZIOAK PERUN

Fujimoriren garaian ebakuntzak sistematikoki egin zirela salatu dute

 **JENDARTEA /** Maider EIZMENDI

Alberto Fujimoriren agintaldian 300.000 emakume eta 22.000 gizonezko esterilizatu zituztela salatu dute Peruko eskubideen aldeko elkarteek, kasu askotan behartuta. Justizia eskatzeko bide luzea egin dute, emaitzarik gabe. Urte haietan gertatutakoa dokumental batean jaso dute orain, Magali Zevallosen «Cicatrices del engaño» lanean.

Dokumental batek jaso ditu euren istorioak orain, baina hamarkadak daramatzate justizia eskatzen. «Cicatrices del engaño» lanean 1996 eta 2000 artean Perun esterilizatu zituzten milaka lagunen egoera islatu nahi izan du Magali Zevallos zuzendariak.

Eskubideen defentsan jarduten duen Demus fundazioak aspaldian jarri zuen mahaiaren gainean salaketa: Alberto Fujimori presidente ohiaren bigarren agintaldian 300.000 emakume eta 22.000 gizonezko esterilizatu zituzten, eta, ebakuntzotan izandako arazoaren ondorioz, 18 emakumek gutxienez galdu zuten bizitza.

PLANIFIKAZIOA ZEHATZA

Ondo lotu eta planifikatutako politika baten ondorio izan ziren ebakuntzok. 1991ko uztailean Fujimorik Austeritatearen eta Familia Plangintzaren Urtearen hasiera iragarri zuen, eta, urte hartan bertan, Biztanleria-Programa Nazionala abiatu zuen bost urterako. Hura amaituta, 1996an, Ugalketa Osasunaren eta Familia Plangintzaren programa abiatu zuen. Eskubideen defentsarako elkarteek salatu dutenez, aipatu programotan esterilizazio kirurgiak aurreikusten ziren, bete beharreko gutxieneko zenbatekoak ezarrita –salatu dutenez, asteko

eta hilabeteko kopuruak ezarzen ziren-. Jarraian, jarritako helburuak betetzera behartzen zituzten osasun langileak. Hala, helburuak betetzen zituzten langileak saritu egiten zituen Peruko Gobernuak, eta, betetzen ez zituztenak, berriz, zigortu egiten zituen.

Aipatutako programok batez ere Peruko inguru txiroenetan

Behartutako esterilizazioak batez ere Peruko ingurune pobreenetan bultzatu zituen Gobernuak.
GAUR8

jarri ziren martxan, batez ere nekazaritzarekin lotutako guneetan bizi ziren emakume indigenei eragin zietelarik, bereziki Ayacucho, Cusco, Huancavelica eta Piura bezalako eskualdeetan bizi zirenei. Emakumeetako askok salatu dutenez –epaitegietara gutxienez 2.000 kasu iritsi dira–, kasu askotan iruzurrak eta mehatxuak baliatu zituzten esterilizazioak egiteko. Besteak beste, seme-alaba asko izaten bazituzten atxilotuak izateko aukera ere bazutela esaten zieten.

Bizi izandakoaren testigantzak egoeraren gogortasuna islatzen dute. «Tutu malgu batekin eta ur hotzarekin busti ninduten. Negarrez hasi nintzen eta erizainari ez nuela ebakuntza egin nahi esan nion. Ez zidan jaramonik egin: gela batera eramanez ninduten, injekzio bat jarri zidaten eta lo geratu nintzen. Esnatu nintzenean, puntuak ematen ari zitzaizkidan, min handia nuen eta oihuka hasi nintzen», gogoratu du esterilizazio ebakuntza bat jasan zuen emakumeetako batek.





Oihartzun handia hartu zuen kasuetako bat Mamerita Mestanzarena da. 33 urteko emakumea bere senarrarekin eta zazpi seme-alabekin bizi zen La Encañadan. Bertako osasun zentroko langileek behin eta berriz presionatu zuten esterilizazio ebakuntza bat egin zezan. Antza hamar bisita baino gehiago jaso zituen, horietan guztietan ebakuntzak izan zitzakeen arriskuez inolako informaziorik eman ez bazioten ere. 1998ko martxoaren 27an egin zioten ebakuntza eta zortzi egun geroago hil zen, operazio ostean garatu zuen infekzio baten eraginez. Bost aldiz eskatu zuen mediku atentzioa, alfer-alferrik. Mestanzaren senarrak kasua salatu zuen epaitegietan eta atzera eta aurrera ibili ostean, 2003ko abuztuan akordio bake-tsu batera iritsi zen Estatuarekin. Akordioan Mamerita Mestanzaren eskubideak urratu zituela onartu zuen Estatuak. Era berean, esterilizazioen biktimak izan zirenen aldeko erreparazio lanaren ardura bere gain hartu zuen Estatuak.

PRESIOAK ETA MEHATXUAK

Mestanzaren istorioarekin antzekotasun handiak ditu Celia Ramosenak ere. Zevallosen dokumentalaren abiapuntua da Independencia herriko emakume honen kasua. Presioak jasan zituen tronpen lotura egin zezan, besteak beste, dagoeneko

haur asko zituela eta horregatik isun bat jaso zezakeela esanez. Bere amari ordu pare batean itzuliko zela esanda irten zen etxetik, baina ez zen gehiago itzuli. Ebakuntzaren ostean sortutako arazoan ondorioz hil zen aste batzuen buruan.

Hain justu ere, Independencia herriko kasua bereziki nabarmendu du dokumentaleko zuzendariak; izan ere, «herri honetan jasotako testigantza gehienegileak torturatu egin zituzten Peruko barne gatazka armatuarekin lotuta». Zevallosek salatu bezala, «indar armatuek torturatu egin zituzten lehendabizi, eta, gero, Estatuak berak esterilizatu egin zituen programa nazional baten baitan». Zevallosen hitzetan, gainera, «orain arte ez dute inolako errekonozimendurik jaso, ezta inolako erreparaziorik ere».

Kasu berean daude kaltetutako pertsona gehienak; justizia egarria handia da. Dokumenta-

Emakume askok tronpen loturak behartuta egiten zituztela salatzen Perun antolatutako ekitaldi bat.
GAUR8

Emakumeek presioak jasaten zituzten tronpen loturak egin zituzten, besteak beste, dagoeneko haur asko zituztela eta horregatik isunak jaso zituzketela esaten zieten

«Garai hartan presidente zen Alberto Fujimorik ezagutzen zituen gertaerok, bai eta Peruko Osasun arduradunek eta zuzenean presioak egiten zituzten funtzionarioek ere»

lean agertzen da Victoria Vigo. 18 urte pasa dira ebakuntza egin ziotenetik. Zazpi hilabeteko haurdun zegoen Piurako ospitalera joan zenean. Salatu zuenez, zesarea egin zioten eta inolako baimenik gabe tronpak lotu zituzten jarraian. Haurrak ez zuen ebakuntza jasan. «Nire tronpen lotura ez zen nire historia medikuan agertzen; haur gehiago izan nahi nituen eta horretarako egindako azterketa batean jakin nuen zer egin zidaten. Jada ez zegoen atzera bueltarik», azaldu zuen. Auzitegien aurrera eramane zuen bere kasua eta medikua soilik zigortu zuten; 2.500 dolarreko isuna jarri zioten.

Rudencina hirugarren haurra izandakoan hasi zen lehen presioak jasaten. Tronpen lotura egiteko aukera aipatu zioten eta senarrak eta biak ezezkua eman zuten. Hilabete batzuk geroago 24 urteko emakumeak seme txikiak mediku azterketa batera eramane zuen. «Nire senarra ekarri zuten poliziek eta esterilizazio ebakuntza egiteko baimena ematera behartu nahi izan zuten; ezezkua eman zuenean atxilotu egingo zutela egin zioten mehatxu. Askok beldurtu nintzen eta ihes egiten saiatu nintzen. Medikuek jarraitu, harrapatu eta ohean jarri ninduen. Lotu eta ebakuntza egin zidaten», salatu du emakume honek.

Dokumentalean gizonezkoen kasuak ere kontatzen dira, Gregorio Perezena adibidez. Basek-

tomia egin zuen bere emaztea esterilizatzera behartu ez zezaten. Ebakuntza ez zen behar bezala irten eta egundo ondorioak jasaten dituela kontatzen du dokumentalean.

2012an biktimen artean itxaropena sortu zen. Mestanzaren kasuaren ondotik izenpetu zen akordioan biktimak erreparatzeko konpromisoa hartu zuen Estatuak eta huraxe gogora ekarri zion Giza Eskubideen Gorte Interamerikarrak berak. Segituan zapuztu zen justizia egingo zen sentsazioa, Limatik kanpora gertatutako kasuen testigantzak jasotzeko adina baliabiderik ez zela jarri salatu baitzuten segituan emakumeen eskubideen defentsan ari zireen taldeek.

Epaitegietan aurkeztutako salaketa asko artxibatu egin ziren urtearen hasieran, antza «ezin delako ziurtatu politika sistematikoa izan zela». Demus fundazioak salatu du Fiskaltzak ez duela kontuan hartu «garai hartan presidente zen Alberto Fujimorik ezagutzen zituela gertaerak, bai eta Peruko Osasun arduradunek eta zuzenean presioak egiten zituzten funtzionarioek ere».

Dokumentalaren helburuetako bat, hain zuzen ere, horixe da: gertaera haien izaera azaltzea, pertsona haiek bizi izan zituzten bizipenak ahanzturan ez erortzea eta Peruko Estatuak berak agindutako justizia eta erreparazioa aldarrikatzea.



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Caro Baroja hirigile

Hitzaldi interesgarriak antolatu zituen EHU-ren Hirigintza eta Lurralde Antolakuntzako jakintza-arloak, pasa den azaroaren 19an, Donostiako Arkitektura Eskolan Julio Caro Barojaren jaiotzaren mendeurrenaren karira.

Hizlari gisa Bixente Taberna, Iñaki Galarraga, Miguel Garai, Kike Muga, Xabier Unzurrunzaga eta Anton Lopez de Aberasturi izan ziren, Caroren legatu arkitektonikoa balioetsiz. Jende gutxik badaki ere, Julio Caro Arkitektura Eskolako irakasle izan baitzen 1977-1978 ikasturte sorrerakoan, EHU bera sortu baino lehen. Persiako lorategiei buruzko eskola eder bat ekarri zuen gogora, esaterako, haren ikasle izandako Muga arkitektoak. Alabaina, Caro Barojak Euskal Herriko arkitektoekin zeukan harremana lehendik zeterren.

Antropologia eta etnologia modu integralean ulertzeko hirigintza sakonki aztertu beharra zegoela argi utzi zuen Julio Carok, haren azterketa aberatsetako helburuetako bat giza-kiaren eta bere habitataren arteko erlazioa argitzea izan baitzen. Eta, frankismoaren ilunpe kulturean, 1950eko hamarkadaren amaieran, hain zuzen, hainbat intelektualekin batera sortutako Akademia Alderraiak zio horrekin ikertu zituen *in situ* Euskal Herriko hainbat hiribildutako arkitektura, "Los Vascos" eta "Vasconiana" liburu itzal handikoetan agertutako begirada urbanistikoari jarraikiz.

«Oso urte emankorrak izan ziren, zeinetan asko ikasi genuen» ziurtatu zuen Garai arkitektoak, 1970eko hamar-

kadari buruz. Urte horietan sendotu baitzen on Julioaren eta euskal arkitektoen arteko erlazioa, eta, ondorioz, arkitekto gazte ugari pasa zen Berako Itzeatik. Orduko haize postmodernoak alde jo baitzuen arkitekturaren eta etnologiaren arteko harremanak sendotze aldera: arkitekturaren munduak aurreko arrazionalismo amnesikoaren aurka erre-akzionatu zuenez, historiak utzitako ondare aberatsean jarri zuen arreta osoa. Eta, zeregin horretan, Euskal Herriko alde zaharrak altxor urbanistiko eta antropologikoak zirela barneratzeko lanean, Julio Caro giltzarri suertatu zen, Garai edo Linazasoro bezalako arkitektoekin batera, Segura, Agurain, Antoñana, Balmaseda, Artziniega eta Urduña aztertzeko, besteak beste, 1973an antolatutako txangoen zein ondoren hezurramitutako "La casa en Navarra" bezalako azterketa mardulen bidez.

Ikuspegi horrek, gainera, lurraldearen eskala handiagoa ere ikertzera eraman zuen Caro Baroja, Lopez de Aberasturi irakasleak azaldu bezala: «On Julioarentzat paisaia ez da eszenario hutsa: herritarren adierazpide kulturalaren emaitza da. Haren osaba Piok gizakia ingurunearen ondorio dela esaten bazuen ere, Carorentzat ingurunea gizakiaren egintza-aren emaitza da». Paisaia, hortaz, herri-historiaren eta -kulturararen sintesia da Caro Barojarentzat. Horregatik marraztu zituen hainbeste paisai eraiki: natura-balio hutsez haragoko balio antropologikoak ikusten zizkielako bailaretako giza finkamenduei, balio formalak barne. Lezio garrantzitsua, paisaia dekretuen bidez arautzen hasi garen honetan. •



ILUSTRAZIOA: Unai Fernandez de Betoño

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Nafarroako «abertzale berriei» kasu

Abisua aurretik, izenburuak ez dezan inortxo ere engainatuta erakarri. Artikulu honek ez du Podemos-Ahal Dugu hizpide izango, bai ordea “Navarrometro” azterlanaren emaitzak. Alderdi berriak eragiten duen morboak zu zeu begirada lerrootan pausatzea eraman bazaitu, beraz, alferrikako lana izango duzu hurrengo datorrena irakurtzea. Aitortu beharko baita goizegi dela Ahal Duguz ganorazko ezer esateko: irizpide handi bezain orokorrak, telebistako hainbat aurpegi ezagun eta zenbait lelo ezagutzen ditugu, ez besterik, musika atsegina baina letrarik ez, eta soinuak ere urrutitik heltzen zaigu, Madrildik. Denbora izango da urrerantzean ere honetaz fundamentuz aritzeko.

Baina nonbait “X” handi horrek berarekin dakarren fokuak gainerako den-dena itsutzen du. Ahal Duguk 18 legebiltzarkide-EH Bilduk 11-UPNk 8 emaitza sinestezin horretatik begirada kentzea zaila egiten da. Eta hala ere, inkestan bada beste hainbat datu harrigarriak, eta, nire ustez, sinesgarriagorik; errailetatik baino, bihotzetik eta burutik erantzuten den beste galdera multzo bati dagozkiolako datuok. Nafarroako etengabeko itauna da, letra handiz idazten dena, azken mendearen zilbor hestea, gakoa.

Ikus dezagun: Nafarroa eta EAE baturik ikusi nahi ote luketen galdetuta, %31k baietz erantzun du, duela lau urteko %25 hura nabarmen gaituta. Sei puntu aurrera egin du baietzak beraz, eta bederatzi puntu atzera ezeztak (2010. urteko %64tik egungo %55era, “Ez daki/Ez du erantzuten” atalean kokatzen direnen kopurua ere hiru puntuz handitu baita). Ño!, ez da gutxi. Baina oraindik mamitsuagoa, ondoko datu hau: Hegoaldeko egungo bi autonomia erkidegoen artean gune komun, iraunkor eta egonkorra nahi ote luketen galdetu zaie estreinakoz nafarrei, eta %69k baietz esan du, %23k ezetz eta %8k ez dakiela. Apustu egingo nuke datu horrek ez duela eserleku banaketaren aurreikuspenak berak baino baina kezka gutxiago eragin UPNren egoitzan.

Aztartutako bi aldagaiak bakarrean bilduz, hauxe litza-teke ondorioa: nafarren %31 ohiko abertzaleak dira (bata-

sunaren aldekoak); beste %38 ez dira abertzale termino klasikoetan ulertuta (ez daude bi erkidegoak batzearen alde), baina Nafarroa EAEren ondo-ondoan izanik eta elkarrekiko laguntza bultzatuta hobeto biziko liratekeela uste dute; beste %23 ez da inolaz ere abertzale, ez klasiko ezta “moderno” ere (egungo erregimenzaleak dira beraz, orain arte jaun eta jabe izan direnak); eta %8k (gutxi) ez du hautu argirik egin.

Datuok ez dute parekorik, ez ezagutu ohi ditugun erakundeetako ordezkariak banaketarekin alderatzen badi-tugu, ez eta hainbat aurrekariren bidez neurtuta ere. Gogora dezagun lau herrialderen arteko balizko elkarlanak bi saiakera dituela atzean. 1996. urtean, Nafarroako Legebiltzarreko 50 parlamentarietatik 28 izan zituen alde, %56 beraz; garaipen eskasa UPNk bidea zapuztu aurretik. Eta 2007an, Loiolako elkarrizketetan adostu zen hasierako zi-

«Navarrometro»-an estalita geratu bada ere, hona sakoneko mugimendua: abertzaleak %31 dira, eutsiz; espainolistak, %23, inoiz baino gutxiago; eta «abertzale berri» gisa har ditzakegunak, %38, asko

rriborroan; akordioa, baina, ez zen itxi eta ondorioz plana ez zen nafar ganbarara heldu, helduz gero emaitza aurreko berdina izango zatekeen arren, aldekoek %56ko ordezkariak baino ez zutelako biltzen bertan.

Orain, aldiz, %69 dira, inoiz baino gehiago. Eta UPN-PSN-PPren tesiaren aldekoak, aldiz, %23, inoiz baino gutxiago. Hortaz, bada zer ospatu, eta batez ere bada zer egin, non eragin. Bereiziki «abertzale berri» horien esparruan, hiru multzoetatik handiena osatzen dutenak, betiko abertzale eta betiko espainolisten artean baino ez distantziakide. Antza, beraiena bihotzean baino buruan hazi den sentimendua da. Nafarroak bakartuta ez du haiantzako ezer eskaintzerik –krisiak, ustelkeriak, sektarismoak, fobieek... barrutik hustu dute– eta arrazoizkoa zaie gipuzkoarrak, arabarrak eta bizkaitarrak ondoan etorkizunari ekitea; la-gungarria, positiboa, oparoa, ona. Kasu egin diezaiegun. •

ZER JANA IZAN DEZATEN

Azken urteotan milaka familia elikagai bankuetara joateko beharrean ikusi dira

 **JENDARTEA** / Iraia OIARZABAL MUJICA

Musu truk egindako lan eskergaren bitartez, familia askoren sabeletan sortutako zuloa estaltzen laguntzen dute elikagai bankuek. Asteburu honetan urte osorako elikagaiak bermatuko dizkien bilketa handian buru-belarri sartuta dabilta, nahiz eta argi daukaten eurena laguntza bat besterik ez dela, ez arazoaren erroko konponbidea.

Supermerkatuetako kutxetan zain izango dira gaur Euskal Herri osoko elikagai bankuetako ehunka boluntario, asteko edo hilabeteko erosketak egitera joan direnen orgatxotik laguntza xume bat jaso asmoz. Ez dute kopuru handirik eskatzen, saltokitik ateratzera doan bakoitzak egindako ekarpen txikiare-

kin milaka lagunena hozkailuak gutxieneko elikagaiak izatea bermatuko dela baitakite. Aurreko urtean egindako bilketan mila tonatik gora jaso zituzten, eta kopuru handia bada ere, jendearen beharrak izakinak agortzen hastera eraman ditu banku hauek. Dilistak, garbantzuak, babarrunak, makarroiak, arroza, esnea, olioak, gailetak, kakaoa, kon-

Nafarroako elikagai bankuko boluntarioak, kontserbak biltzen ondoren banatzeko.
Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

tserba poteak... gutako askoren etxean ohikoak diren jakiak beste askoren etxeetatik desagertu egin dira azkenaldi honetan. Krisiak eta honen eraginez muga guztiak gainditu dituen langabezia tasak zuloa itzela sortu dute jende askoren poltsikoetan eta, ondorioz larrienean, baita euren sabeletan ere. Horrekin batera, gainbehera ekonomikoaren aitzakiapean ezarritako murrizketek administratibotik oinarritzko laguntza bat lortzea gero eta zailago bihurtzen du askorentzat.

Egoera horren gordintasunaren jakitun, azken urteotan asko dira elikagai bankuen inguruan lanean ari diren pertsonak. Batez beste, 450 pertsona inguru astero joaten dira biltegietara, bakoitzak ahal duen neurrian familia ezberdinetara bideratuko diren elikagaiak sailkatu, bildu eta fardeletan prestatzera. Azken asteotan eta baita hurrengo egunetan ere bilketa erraldoi batean ari dira lanean. Kanpaina horretarako boluntario kopurua handitu egin dute eta 8.000 bat lagun ariko dira lanean.

OINARRIZKO FARDELA

Ez da halako bilketa handia egin duten lehendabiziko aldia. Aurreko urtean ariketa bera egin zuten supermerkatu eta saltokietan zehar, ostiral eta larunbatez orduan ere. Aurtengogan, atzo hasi ziren eta gaur jarraituko dute, saltokiek ateak itxi arte. Euskal Herrian eta Estatu espainiarreko gainerako erkidegoetan egingo da bilketa. Ostirala eta larunbata aukeratu dituzte familia askotan ohikoa izaten delako erosketak egun horietan egitea, horrek janari gehiago biltzeko aukera zabal-tzen duelarik.

Eskatzen dituzten produktuak ez dira bereziki garestiak; oinarri-oinarritzkoak dira gutxieneko elikadura bermatzeko, gutziak albo batera utzita. Esne tetrabrik batzuk, lekaleak, arroza, pasta, olioak eta gosaritarako gailetak eta kakaoa erosketa egitera doan edozeinek bere orgatxoan sartzen dituen gutxienekoak dira. Eta hain zuzen ere, produktu horiek dira elikagai



bankuek familia bakoitzarentza-ko banatzen duten oinarritzko fardelak barnebiltzen duena. Aurtengoan, ordea, bada berrikuntza bat bankuen eskarietan. Garrantzi berezia eman diete haragi eta arrain kontserbei; eta arrazoia logikoa bezain samingarria da, gero eta gehiago baitira janaria prestatzeko baliabiderik ere ez dutenak.

Pobrezia energetikoa deritzonaz ari gara, hau da, elektrizitatearen faktura ordaintzerik ez izateaz. Horren ondorioz asko dira negua hotzez edo manta ugarirekin estalita pasatzen dutenak, baita janari beroa dasatzeko gutxieneko energia kontsumoa egiten dutenak. Horregatik, mikrouhin labean minutu gutxi batzuetan berotu daitekeen janaria eskuratzea abantaila handia da askorentzat.

Eskuratzen zailagoak izaten dira haurrentzako produktuak; ahiak, fruta potetxoak, esne hautsak eta fardelak kasu. Garestiagoak izaten direnez, bankuek ez dituzte eskarien barruan sartzen, baina badakite pertsona askok ederki eskertzen dituztela biltegira iristen direnean. Halakoetan, zailagoa izaten da banaketa egitea, produktu horiek kantitate txikiagoan iristen baitira eta eskaria handia izaten baita.

Baldintza horiek guztiak kontuan edukita eta aurtengo bilketak ematen duenaren arabera, hurrengo asteetan sailkatze lan handia izango dute elikagai bankuetan. Aurreko urteko esperientziak oroitzapen ona utzi du kanpainaren arduradunen artean eta aurtengorako aurreikuspenak handitu egin dituzte. Bilketaren estimazioak gora egin duen bezala, eskari kopuruak ere, tamalez, hala egin baitu. Gaur egun, Hego Euskal Herriko elikagai bankuek 100.000 pertsona baino gehiago laguntzen dituzte.

Luis Crovetto Bizkaiko elikagai bankuko komunikazio arduradunaren arabera, elikagaiak eskatzen dituzten pertsonen kopuruaren igoera nabarmena izan da. Mende honen hasieran proiektua martxan hasi zenetik, laguntza eskatzen dutenen ko-

450

pertsona inguru joaten dira astero boluntario moduan elikagai bankuetara lanera. Goizetan eta norberak ahal duen neurrian laguntzen dute janaria bildu eta banatzen.

8.000

boluntario inguru aritu dira Hego Euskal Herriko supermerkatuetan egunotako bilketa erraldoiaren baitan elikagaiak jasotzen. Laguntza handia da, urte osoan zehar 450 inguru baitira lanean aritzen direnak.



Iruñean kokatutako elikagai bankuko boluntario bat, barazkiak sailkatzen. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

purua bikoiztu egin dela aipatzen du eta azken urte hauetan %33 inguruko igoera eman dela azpimarratzen du.

Duela urte batzuk, elikagai bankuetan laguntza eskatzen zutenak gizarteko sektore ahulenetako kideak zirela pentsa zitekeen. Gaur egun ez da hain arraroa janaria eskatzeko beharrean ikusten den jendearen berri entzutea, edonork ezagutu dezake trantze horretan dagoen

norbait. Egoera kezagarria da eta horren jakitun da gizartearen gehiengo zabal bat, baina, aldi berean, ez du berebiziko asaldurarik eragiten.

Langabezia egoera uste baina gehiago luzatu eta diru laguntzak lortzeko aukerarik izan ez duten askok murriztu behar izaten dituzte euren gastuak. Kasurik okerrenean, oinarritzko beharrak murriztera iristen dira eta familiak edo gertukoek lagundu

ezin dietenean elikagai bankua da euren esperantza nagusia. Argazki iluna da oraintxe deskribatutakoa, baina gordina bezain erreala da erradiografia horretan marraztutako egoera.

Lotsa

Lehen salbuespenezko ekintza bat zena, hots, elikagaiak eskatzea, askorentzat eduki nahi ez luketen ohitura bihurtzera ere iritsi da. Jan ahal izateko aukera



bakarra. Baina oinarrizko baliabideen eske joan behar izateak maiz eragiten dituen erreparak ez dira erabat desagertu.

Bada bere buruaz lotsatzen denik ere, ingurukoek esan dezaketenagatik, beharrak eragindako larritasun egoerengatik eta pertsonen inguruan oraindik ere sortzen diren estigmak medio. «Zer pentsatuko dute nitaz?», horixe da askok bere buruari egiten dioten galdera. Ez dira jabetzen, askotan behintzat, bizi duten egoera ez dela gauzak gaizki egin izanaren ondorio, egoera ekonomikoak, ia kroniko bihurtutako langabeziak eta desberdintasunean oinarritutako gizarte eredu batek elikatutako zurrunbiloan bizitzaren emaitza baizik.

Dena delakoa dela arrazoia, lotsa sentimendu hori modu ezberdinetan azaleratzen da elikagai bankuetako egunerokotasunean. Jose Antonio Aguirrebeña Gipuzkoako elikagai bankuak

Bergaran duen biltegiko jardunaz arduratzen da eta oso ongi ezagutzen du egoera. Bilketa erraldoiaren bezperatan eta boluntarioak elikagaiak sailkatzen diharduten bitartean bankuaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Esaterako, gizarte zerbitzuetara jo beharrean batzuetan zuzenean elikagai bankura joaten den jendea dagoela aipatzen du. Zenbaitetan, zerbitzu publikoetan laguntza eskatzeak eragiten dien lotsak bultzatuta jarduten

Bilketaren estimazioak gora egin duen bezala, eskari kopuruak ere, tamalez, hala egin du. Hego Euskal Herriko elikagai bankuek 100.000 pertsona baino gehiago laguntzen dituzte

Krisiak eta honen eraginez muga guztiak gainditu dituen langabezia tasak zulo itzela sortu dute jende askoren poltsikoetan, baita, ondoriorik larrienean, euren sabeletan ere

Bergaran kokatutako Gipuzkoako elikagai bankuko boluntarioak, bilketa handiaren bezperan elikagaiak sailkatzen.

Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

dute horrela. Larritasun egoera bat bizi dutela onartzeko erreparagatik edo unean uneko arazo bat besterik ez den kontentzimenduagatik.

Elikagai bankuen funtzionamendua, ordea, bestelakoa da, eta ez dute eskatzaileekin zuzenean harremanik mantentzen. Hau da, ezin diote janari eske doan edonori elikagairik eman. Bankuek entitate ezberdinekin egiten dute lan, Caritas eta bestelako elkarteekin. Era berean, udaletako gizarte zerbitzuekin lankidetzan ere aritzen dira. Eura dira bankura joaten direnak beharrezko elikagai fardelen bila eta euren gain hartzen dute banaketa lana. Izan ere, elikagai bankuetatik iristen zaien janaria banatzeko garaian hainbat irizpide jarraitzen dituzte elkarre eta gizarte zerbitzuek, Aguirrebeñak dioenez, nolabait elikagaiak beharrean dauden pertsonengana iristen direla bermatzeko.

Horiek horrela, elikagaiak eskuratzea eta sailkatzea da bankuen eginkizun nagusia. Astelehenetik ostiralerako goizetan mugimendu handia izaten da biltegietan. Supermerkatuetara soberan eta galtzear dauden produktuak jasotzera doazen furgonetak, biltegian elikagaiak ikuskatu eta sailkatzen dituzten boluntarioak, fardelen bila doazen elkarteen autoak kargatzen dituztenak...

Bergarako biltegian erretiratuak dira boluntario gehienak eta aldarte onean aritzen dira lanean. «Bakoitzak ahal duena ematen du, denboraren eta hemendik kanpo dauzkan eginkizunen arabera», aipatzen du Aguiñeberrak. Atzetik, sartu berri den gizonak hala dio janariz beteriko kutxak ikustean: «Gaur ere ahalegintxo egingo dugu».

Biltegiko apal gehienak hutsik daude jadanik, urte osoan zehar egindako banaketan ondorioz, baina gutxi batzuetan oraindik

1.000

Tonatik gora jaso ziren 2013ko bilketa erraldoian eta aurten kopurua handitzea aurreikusten dute. Bilketa horretan jasotakoarekin ia urte osorako produktuak lortzen dituzte

ere badira kutzak. Gehienbat olio, esnea, lekaleak, arroza eta pasta gordetzen dituzten apalak daude beteta, aurreko urteko bilketa erraldoian jasotakoak irauten baitu oraindik. Hori da galkorrak ez diren elikagaien abantaila.

Galkorren kasuan kontu handiagoa eduki beharra dago, banaketa presazkoa izaten baita. Barazkiak eta frutak ezinbestekoak dira elikadura osasuntsu batean eta ezinbestekoa da hauek baldintza egokietan banatzea. Hori dela eta, supermerkatuetatik eta kooperatiba handietatik produktu freskoak iristen zaizkienean, egoera onean daudela ziurtatu eta elkarrekin banatzeko prestatzen dituzte. Enpresa eta kooperatiba handiez gain, bankuetan jasotzen diren elikagaien zati bat Europar Batasuneko funts batek iristen dira.

Ohiko bideez gain, biltegiko lau hormen barruan elkartasun keinu ederrak ikusteko aukera ere izaten dute boluntarioek. Aguirrebeñak orain gutxi jazo-tako pasarte bat kontatzen du; Deba bailarako baserritar bat bankura gerturatu zen baratzean soberan zituen barazkiak eskaintzera. Noizbehinka gerturatzen ei dira norbanakoak bankura etxean dutena bota edo galtzen utzi beharrean probetxua aterako dion norbait egongo dela jabetuta.

ALDATZEKO ASKO

Paco Burgos Nafarroako elikagai bankuko ordezkaria ere baikor agertzen da bilketa erraldoiari begira. «Oinarrizko baliabideak falta dituzten 36.000 pertsonengana iristea espero dugu», baieztatzen du. Orain arteko datuek jarrera positibo hori mantentzeko arrazoiak ematen dizkiote. Izan ere, 2013an 350 tona barazki eta fruta banatu zituzten eta aurten, urte amaitzeko hilabete eskas falta denean, 800 eta 1.000 tona inguru daramatzate banatuta jada, bikoitza baino gehiago.

Datu gazi-goza, nondik begiratzen den. Alde batetik, elikagai gehiago biltzeko gaitasuna eta konpromisoa egon badagoela

Elikagai bankuetan argi daukate amildegitik gertuegi daudenentzako «laguntza bat besterik ez» direla. Baina hilabetea gutxieneko jakiekin igarotzeko aukera ematen dio askori euren lanak

Aurten garrantzi berezia eman diete haragi eta arrain kontserbei; eta arrazoia logikoa bezain samingarria da, gero eta gehiago baitira janaria prestatzeko baliabiderik ere ez dutenak

erakusten du, baina alde ilunagoa ere ekartzen du argitara, beharrean dauden pertsonak ere gehiago baitira. Hala adierazten du berriki kaleratutako 2013ko Integrazio eta Gizarte Beharren inguruko inkestak. Horren arabera, Nafarroan 95.000 dira pobrezia arriskuan dauden pertsonak. Aitzitik, arriskuaren muga gainditu eta pobrezia egoeran bizi direnak 20.000 dira.

FOESSA Fundazioak aurkeztutako azken txostenak norabide berean doazen datuak azalera-tzen ditu. Horren arabera, EAEn milioi bat pertsona inguru (%45,3) baztertuak izateko arriskuan bizi dira. Ikerketa horren beste ondorio nagusietako bat da pobrezia egoeran dauden

biztanleen eta aberatsenen arteko desberdintasuna areagotu egin dela.

Elikagai bankuetan argi daukate amildegitik gertuegi daudenentzako «laguntza bat besterik ez» direla. Laguntza oso baliagarria eta askori hilabetea gutxieneko jakiekin igarotzeko aukera ematen diona, baina hori baino ez. Baieztapen gogorra dirudien arren, Aguirrebeñak berak aitortzen duen moduan, elikagai bankuen jardunak ez du erroko arazoa konponduko. Ez ditu batzuk pobre eta besteak aberats egiten dituzten desberdintasunak eta harresiak ezabatuko. Gehienez ere, desberdintasun horien ondorio krudelenak baretuko ditu, askoren zorionerako.

Bi lagun Bergarako elikagai bankura janariarekin iritsitako furgoneta bat deskargatzen.
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



{ analisis } Floren AOIZ MONREAL Historialaria

Nafarroa: noiz erortzen da erregimen bat?

L

ehengoan, GARako kazetari batek tirabira bitxia izan zuen Nafarroako Gobernuaren bozeramalearekin, honek emandako hondarreko Urrezko Dominaren harira. Galdera zorrotzak luzatu zizkion Aritz Intxustak, frankismoa aipatuz, dominaren zergatiak ikertu nahian, bozeramalea lelo ofizialean gotortzen zen bitartean.

Ez zen, ziurrenik, lehen aldiz gertatuko, baina bien artean piztu zen galdera-erantzunen joan-etorriak harritu egin ninduen. Hormaren kontra atzematen zuen bere burua Juan Luis Sanchez de Munianek, na-

«Erregimenaren indarrak higitzea eta kontraesanak biderkatzea zaila izan bada, askoz ere nekezagoa izanen da alternatiba gauzatzea. Uzta egin eta alternatiba eraikitzea da oraingo aupada»

barmenki. Esaldiak doi-doi bukatzen zituen, gero eta urduria-go zegoelarik. Pentsaezina zen halako zerbait duela urte batzuk, baina, to, ikuskizun ederra zen ene ordenagailuaren pantailan. Harridura areagotu egin zen gerora, non eta Nafarroako telebista kaskar horietako batean pasartearen berri eman zutenean (ez ditut bereizten: airtortzen dut, batzuetan bat baino gehiago ote diren zalan-tzak ditut).

Nafar Parlamentuak dominaren kontrako jarrera agerrarazi zuen, nahiz eta gerora Gobernuak erabakia aurrera eramateko asmoa berretsi duen. Prentsaurrekoan gertatutakoa ez zen gertaera isolatua, beraz, erregimenaren gainbeheraren beste adierazpen bat baizik.

Beste une batzuetan, erraz baztertuko zituen bozeramaleak halako galderak, egilea (GARa edota kazetaria bera) satanizatuz, joera erasokorragoa hartuz edo gorrarena eginaz, zuzenean. Beste une batean, Parlamentuak ez zuen halako erabakirik hartuko. Eta ez da susmo bat: oso ezberdina izan da hainbat alderdik iraganean Uharte eta oro har frankisten gorespenen aurrean hartu duten jarrera. Aldaketa nabarmena da, beraz, eta ene ustetan aldakuntza joera sakon eta zabalean kokatu behar da.

Koiotearen harridura

Duela hilabete batzuk, irri egin nuen nork eta gure Zizek filosofo ezagunak asko maite dudan irudi bera erabiltzen zuela ikusita. Irudian, *Correcaminos* (Bidelari hemendik aurrera) pertsegitzen duen Koiotea, bat-batean, konturatzen da ez dagoela jada lurraren gainean, amildegian



Yolanda Barcina, pentsakor, datozen hauteskundeetara aurkeztuko ez dela jakinarazi aurretik. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

baizik. Ohartu bezain laster (eta ez lehenago) erori egiten da.

Badirudi bat-batean ulertu dutela, Koioteari gertatu bezala, amildegiaren gainean zeudela. Orain arte, akaso, Bidelari harapatzeko obsesioak itsuturik (asma ezazue nor izan daitekeen istorio honetan), ez diote erreparatu arazoaren larritasunari. Iritsi zaie, ordea, oinen azpian lurrik ez dagoela konturatzeke unea, eta, hala, Koiotea bera bezala, izutu eta jauzika hasi dira, hertzera hurbildu nahian.

PSNren hondamendia aintzat hartuz eta UPNren barnean zabaldu den nahaste-borrastea ikusita, erregimenaren etorkizuna kolokan den usteak ez dirudi tokiz kanpokoak. Barcina eta Robertico lehen mailatik joan izana beranduegi iritsitako neurri desesperatuak izan daitezke, ez baitute, oraingoz bederen, bi alderdion itxaropenetan hobe-kuntza argirik ekarri. Barcina estalkia zela nabarmena izanik ere, ez dakigu zer aterako den botilatik, eta, beharbada, hautagaia aukeratzeko prozesua bera, alderdia indartzeko baino, ahultzeko beste parada bat bilaka daiteke. Nekez piztuko du ilusiorik Barcinaren menpeko norbaitek, baina zaila dirudi zuzendaritzak barne lehia galdu zuen sektoreko norbaiti ateak irekitzea. Zaila baina ez ezinezkoa, Sanzen taldekoek, gaur egun, besteek baino kokapen hobea dutelako atxikimendu krisiaren mailaketan.

UPNren baitan jakin behar zuten dagoeneko, edonola ere, izen batzuk aldatzea ez dela aski. PSNren bilakaera begiratzea besterik ez zuten. Egia da Chivite ez dagoela beste batzuk bezain erreta, eta agian gauza bera pentsatuko dute UPNren



baitan Catalan edo Salanuevari buruz, baina suak jada eraikin baten egitura hartu duenean ez da aski erretako egurtxoak kanporatu edo ur balde pare bat botatzea. Azaleko kosmetika operazioak baino gehiago beharko dituzte bi alderdiok eta, finean, haietatik harago doan erregimenak, ireki den krisia egoera gaingiditzeko.

«Navarrometro»-ak eragindako lurrikara

Sumatzen genuenari beste bultzada bat gehiago eman dio “Navarrometro” bezala ezagutzen den aldian aldiko azterlanak. Erregimenak kolpe handiak hartu ditu eta mailarik baxuenean dauka sinesgarritasuna. Azterlanaren aurreikuspenek irakurketa ezberdinak ekarri dituzte, baina ukaezina da herritarren haserrea izugarria dela.

Aldaketa nabarmenak atzematen dira erregimenaren oinarriak izan diren ataletan: Foru Hobekuntzarekiko atxikimendua, Hego Euskal Herriko

beste lurraldeekiko harremanak, instituzioen zilegitasuna, jendartearen kezka nagusiak... Krisia ez da azalekoa eta ez da PSN eta UPNren gainbeherara mugatzen. Balioespen hutsak dira eta ez hauteskunde emaitzak, berriz esanen dut, eta zaila handiak agertu dira azterlana egiteko baliatu duten metodoaren inguruan, baina, honakoa ere nabarmendu beharra dago: beste hainbat esparrutan nabaritzen diren joerakin bat datoz emandako datuak eta horrek sinesgarritasun ukitu bat behintzat ematen die, ñabardurak ñabardura.

Ene ustetan, arrazoiak daude “Navarrometro”-aren hainbat datu kolokan jartzeko. Gerta daiteke Podemos-Ahal Duguren igoera handirik, baina hila-bete batzuk falta dira oraindik maiatzera iristeko eta galdera ikur zabala agertzen da alderdi berri honen gainean. Sinesgarria da, ene ustetan, jende askok Podemos-Ahal Dugu aipatzea haserrearen adierazpen gisa, batez ere erregimenarekiko nolabaiteko atxikimendua izan duten batzuek: zapuztuta

daude, baina zaila egiten zaie EH Bilduri edo Geroa Bai-ri boza ematea. Podemos-Ahal Duguren definizio ezak laguntzen du hori, gainera: besteak baino askoz ere apustu errazagoa da. Halakoak lortzeko, jarrera argia baino onuragarriagoa da hartu duten frankizia profila. Hori esanaz ez dut indar politiko berri honen emankortasuna ukatu nahi: nabarmena da beste eragile batzuek zailtasun handiak dituztela hainbat jendarte esparrutan gertatutako erregimenaren higadura aldaketarako atxikimendu bilakatzeke.

Podemos-Ahal Duguren agerpenak aukera berriak ireki ditu. Ez dakigu zein izanen den alderdi honen bilakaera, baina erregimenaren kontrako indarrak ugaltzeko lagungarria izan daiteke. Baten batek kolokan jarri du hauteskundeetara joanen ote diren ere, baina zaila egiten da halakorik pentsatzea, egia esan. Aurkeztan badira, Estatuan lortu duten ikusgarritasunari esker, protagonismo handia izanen dute lehia gehienetan, eta aldeko haizea dabilkie, nabarmenki.

«Navarrometro» azterlaneko datuak plazaratu zituzten unea. Bertan jasotako emaitzek sekulako lurrikara eragin dute Nafarroan.
Idoia ZABALETA | ARGAZKI PRESS



Kasu egin beharko diote, baina, haizeari, norabidez aldatzeko joera izaten baitu, eta, agian, aldatzen hasi baita jada, segituan aipatuko dugunez.

Esparru guzietan atzematen da Podemos-Ahal Duguren igoera, baina ez maila berean: inkestak oso emaitza onak ematen dizkio EH Bildu koalizioari, bigarren indar gisa agertuz. Gertatu zen jada europar hauteskundeetan, eta kezka handia ekarri zuen orduan, baita oraingoan ere, aukera horrek. Batetik, erregimenaren esparruan ederki dakitelako EH Bilduk estrategia argia eta erronkari aurre egiteko indarra, malgutasuna eta irudimen politikoa dituela, instituzioetatik harago doan eraldakuntza egitasmo baten baitan gainera. Bestetik, Geroa Bairen lidergo asmoak ahultzen dituelako, berriz ere, PSNrekiko irteeraren aukera zailduz.

Erregimenaren ikuspegitik, EH Bildu ez da, inondik inora, “jangarria”: kooptazioa ez da posible koalizioarekin. Ez dakit gauza bera pentsatzen duten Podemos-Ahal Duguren inguruan, baina, zuek, erantzun baino lehen, mesedez, pentsa ezazue une batez zer gertatuko zatekeen “Navarrometro”-ak EH Bildu lehen indar gisa aurkeztu izan balu, eta gertatu denarekin alderatu. Iruditzen zait ariketa horrek argi pixka bat ematen ahal digula jokoan dagoena hobeki ulertzeko.

Lurrikaren ondotiko lurrikarak

Inkesten ezaugarritze formatiboa aipatu ohi da eta oraingoan ere gertatu da. “Na-

varrometro”-aren argitarapena ekintza politikoa izan da eta ondorio politikoak izan ditu, eskaini dituen datuak oso fidagarriak ez izanda ere.

Hasteko, erregimenaren krisia areagotu egin du, eliteen urduritasuna areagotuz. Batzuen ustetan horixe zen helburua, erregimenak erantzun bat eman beharko baitu hemendik aurrera, hainbat zama gainetik kenduz eta ilusioa edo beldurra (edo biak) pizteko gaitasuna landuz. Aldaketaren aukerak gorputza hartu du eta horrek izua zabaldu du hainbat esparrutan, fitxak mugitzeko beharra ageri-agerian utziz.

Baina hori ez da “Navarrometro”-ak utzitako ondorio bakarra. Aipatu dugunez, Podemos-Ahal Dugu lehen mailan jarri da, baita Nafarroan ere, eta hori gertatzean bere ahulezi eta kontraesanak denon begien bistan gelditu dira. Ordu gutxi batzuk pasa eta espektakulu harrigarria eman zuten alderdiko eledunek, batek harropuzkeria alarde bat egin eta halere lehendakaritza Uxue Barkosi eman behar ziotela esanez, eta beste batek argi utziz gauza bakarra dutela argi: azken erabakia Espainian hartuko da eta ez Nafarroan.

Laster etorri dira hitz horiek abiatutako suak itzaltzeko

Podemos-Ahal Duguren hauteskunde osteko balizko paktuak Nafarroan ala Madrilén erabakiko diren eztabaidagai izan da azken astean, PSNrekin azken urteotan hainbat aldiz gertatutakoa gogoan. Irudian, PSNko Roberto Jimenez, bakar-bakarrik. Jagoba MANTEROLA | A.PRESS

saioak. Batzuek Nafarroako Podemos-Ahal Duguk hartutako erabakiak onartu ezean alderdia utziko dutela aurreratu dute. Beste batzuek argitu digute Nafarroako alderdiaren batzarrak erabakiko duela zer egin, baina, arazorik egonez gero, azken hitza Espainiak izanen duela. Hala izatekotan, erabakiko duena ez da zuzendaritza izanen, alderdian parte hartzen duten guztiak baizik. Baten bat lasaituko da horrekin, agian. Niri, berriz, PSNren aldarrikapen batzuen oroimena etorri zait gogora. Hala irudituko zitzaie, agian, Orkoiengo Podemos-Ahal Duguren zirkulua osatzen zuten lagunei ere. Izan ere, “Diario de Noticias” egunkariaren arabera, taldea desegin dute, piztu den lehian argi gelditu delako azken hitza Madrilén izanen dela.

Ikusi beharko da zertan gelditzen den Podemos-Ahal Duguren indarra, eta batez ere, zein izanen den bere jarrera. Alderdiko buru batzuek esana dute jada EH Bildurekin ez dutela itunik sinatuko eta horixe da hainbat esparrutan, mahai azpian, zabaltzen ari dena. Edonola ere, ez da hori Podemos-Ahal Duguri boza emateko asmoa duen jende askoren asmoa, eta, hortaz, alderdiak sakoneko arazoari egin behar-

ko dio aurre: Nafarroan indarra eman diezaiokeenak kendu egiten dio Estatuan. Hori horrela, Podemos-Ahal Duguren estrategiaren oinarria argitasun eza izanen da, eta auzi honetan ere erantzun argiak emateari ihes egin nahi izanen diote, erraza izanen zaienik ez dirudien arren.

Lurrikararen beste ondorioa EH Bilduren gain eroritako ardura da. Hobe esanda, egiaztatutako ardura. EH Bilduk Podemos-Ahal Duguren agerpenaren erronkari aurre egin beharko dio, besteak beste. Mehatxu gisa har dezake, horrela ikusi du jada jende askok. Baina aukera ere bada, zuhurki kudea daitekeen paradigma. Arerioak eta bidelagunak okertzea akats handia izan daiteke. Egia da goizegi dela bi joera horietatik zein nagusituko den Podemos-Ahal Dugu eta EH Bilduren arteko harremanean, baina Adolfo Araiz zerrendaburu duen koalizioak argi utzi du jada ez duela sektarismo terminoetan erantzunen. Gaur egun, jende orok daki Nafarroan EH Bilduk aldagetakerekin konpromisoa hartua duela, gertatzen dena gertatu ere. Hori horrela, “Navarrometro”-ak eragindako lurrikararen errepikapenean agerian utzi dute EH Bildu dela erregimen aldaketaren gako, beste batzuek mezu ilun, kezagarri eta kontrajarriak eskaini dituzten bitartean, koalizioak indar oroz piztu duelako estrategia argi baten itsasargia.

Politika munduko gai nagusi den eta izanen den erabakitzeko eskubidearen eta esparruen inguruko eztabaida zabaltzen lagundu du gertatutakoak. Erraza da gai honen inguruan

Kontraesanak

Oihane
Larretxea

Bizitzak berak baditu kontraesanak, berezkoak direnak eta, gehiago ala gutxiago kostatzen direnak. Aitzitik, benetan aldrebesak direnak guk geuk sortzen ditugun kontraesanak dira.

Orain egun batzuk lagun bati hots egin nion, lanpostu berria lortzeko –lanpostu ona, oso tentagarria eta egun dituenak baino baldintza hobeak– curriculuma aurkeztu behar zuen egunaz galdetzeko. Hiru ama hizkuntza, lizentziaduna, master bat, ikastaroak, arlo zehatz horretan lan esperientzia hainbat urtez eta batez ere egiten duenagatik grina. «Sentitzen dugu, baina curriculum onegia duzu. Formatuegia zaude». Sinesgaitza, baina huraxe izan zen bulego hartan jaso zuen erantzuna.

Lagunari zer esan ez nekiela gelditu nintzen. Aspaldian entzun nuen kontraesanaren kontraesanaren aurrean nongoen. Alde batetik, ikasteko, ezin dugula lorik hartu, gurean onenak izaten saiatu behar dugula atzetik daudenak harrapatu egingo gaituztelako bestela... Hala eskatzen digute, eta hala egiten dugu.

Baldintza aproposak betetzen ditugunean, ordea, aukeren faltan, atzerrira joan beharrean daude talentu ugari. Orduan, eta ez lehenago, negar egiten dute enpresarietako eta arduradun politikoei, baita gurasoei ere –hauek bai malko zintzoak–.

Garai batean profil profesionala puztu egiten zen: han eta hemen aritu zinela, hura eta bestea egin zenuela... Hori bai, nork esan behar zuen lanpostu bat eskuratzeko bikaina den curriculum batetik gauzak ezabatu beharko genituela, inbertitutako denbora eta trukean lortutako jakinduria guztia lausotu beharko genituela «onegiak» ez izateko! Atera dirua koltxoi azpitik, curriculumek tokia behar dute-eta. •



posizio ahul eta indartsuak non dauden marraztea eta ulergarria da erregimenaren aldekoen antsietatea. Gobernu berri baten aukerak kezkatzen baditu, askoz gehiago arduratzen ditu estatusaren inguruko lehia demokrazia terminoetan jartzeak, aspaldiko komodinak («*que vienen los vascos*», ETA-ren mehatxua...) gero eta indargabetuago agertzen baitira.

Arduraz jokatzeko tenorea

Edonola ere, ez dut uste iritsia denik Koioteak lurrean utziko duen zuloaren zain gelditzeko unea: ez da erregimenaren azken jauzia eserita itxoiteko garaia. Aipatu lurrikarek krisiaren neurriaren berri ematen digute, baita erregimena erorarazi eta ordezkatzeko erronkaren tamaina oroitarazi ere. Erregimenak ez dira erortzen norbaitek behera bota eta beste bat eraikitzen ez duen arte. Eta, gurean, erregimenaren indarrak higatzea eta kontraesanak biderkatzea zaila izan bada, askoz ere nekezagoa izanen da alternatiba gauzatzea.

Egingarria da, ordea, eta egin beharra dago. Hurrengo hauteskundeetan lehia erraldoia antzeztuko da, baina borroka

askoz zabalagoa da. Horregatik akats handia da, ene ustez, auzia orain ala inoiz ez terminoetan aurkeztea. Izan ere, etxera joan gara, zapuztuta, hilabete batzuetan lortzen ez badugu? Ez, jakina: ziklo luzeko ikuspegia lagun, urrats eta lehia guztiak dira garrantzitsuak.

Erregimena ez da berez eroriko, eta indarrean jarraitzeko era guzietako estrategiak erabiliko ditu. Finean, erregimena indar harremanen kristalizazioa da (Laclau gogoan, hontan ere...) eta eliteek ez dute kiroltasunez hartuko beren porrota. «Navarrometro»-ak ez du argitzen (ezin du) zenbat herritarrek egingen duten bat erregimenarekin arrisku larrian ikusten badute. Datu ezezagun hori, aldiz, erabakigarria izan daiteke hauteskunde egunean. Kasu, beraz!

Urteetan luzatutako salbuespen egoera bereziki onuragarria izan da erregimenarentzat: ilegalizazioak, joko arau zikinak... Azken urteotan, espainiar Estatuak altxatu behar izan ditu salbuespen neurri batzuk eta horrek min egin dio erregimenari, min handia, baina lehia, berriz ere esanen dut, ez da bukatu. Aukera handia ireki du urteotako borrokak. Uzta egin eta alternatiba eraikitzea da oraingo aupada.

Nafarroan ustelkeria
eta delinkuentzia
politikoaren kontra
Kontuz elkarteak deituta
egindako manifestazio
jendetsua.
Jagoba MANTEROLA | A.PRESS



Gorka Zozaia
Kimikaria

Bahe beharrean

Filosofiako irakasleak kristalezko poto bat jarri zuen mahai gainean. Poltsa batetik harri handi batzuk atera eta potoa bete zuen. Ikasleei potoa beterik ote zegoen galdetu zien, eta, hauek baietz erantzutean, beste poltsa batetik hartxintxarrak jaurti zituen potoa. Mugimendu batzuekin, harritxoak handien artean egokitzen joan ziren, potoa berriz bete arte. Jarraian, beste poltsa batetik harea bota zuen potoa, harrien arteko hutsune guztiak betetz potoa leporaino bete arte.

Aurreko artikuluan, “Arimen gaueko udatxoa” izenburupean, urriko hondarrean izandako “ezohiko” beroa eta gurean ere indartzen ari den Halloween ospakizuna hizpide hartuta, datuak eta informazioa gauza bera ez direla azaltzen saiatu nintzen. Zehazki, ahanzturaz mintzatzen nintzen, alzheimer kulturaz, arruntak izan beharko zitzaizkigun gertaerak ezohiko nola bilakatzen diren; datu zaparradak informazioa nola lausotzen digun. Ohiko lez, jakintzaren erai-kuntzaren hausnarketaren putzura jausi nintzen, baina jada igeri egiteko lekurik gabe. Gaur, baina, luze pare bat egiten saiatuko naiz.

Lehen luzean, datuak, informazioa eta kultura lotu nahi nituzke; hitz bakoitzari zer esangura ematen diodan azaldu. Datuak ingurutik jasotzen ditugun estimuluak lirake, gertaerak, ultrakomunikazio ingurune honek eskaintzen digun berri, mezu eta irudi bombardaketa; interpretazio bat eskatzen duten estimuluak. Informazioa, berriz, gure ingurunea ulertu eta aurreikusteko gaitasuna ematen diguna litzateke; interpretaturiko estimuluak, logika batean ezarritako datuak. Eta kultura, beraz, estimuluak interpretatzeko mekanismo hori litzateke, datuetatik informazioa ateratzeko modua. Ez hartu esangura hauek modu itxi batean, finean esan nahi dudana zera baita: bizi dugun datu zaparradatik informazioa ateratzeko bahe bat behar dugu, iragazki bat, intereseakoak zaizkigun datuak bereizteko batetik eta datu horiek modu aiposean lotzeko bestetik.

Urrian “El País” egunkarian elkarrizketatu zuten Roberto Rigbon MIT Ameriketako Estatu Batuetako Enpresa Zuzenda-

ritzako eskola prestigiotsuko irakasleak azpimarratzen zuen bezala, datuak informazio bilakatzeko behar-beharrezkoa da giza faktorea. «Datuek bere horretan ez digute ezer esaten, eta datu gehiago izateak ez du esan nahi informazio hoberik dugunik». Nik gehituko nioke, datu zaparrada, informazio gehiago ateratzeko bide den bezala, informazio ona ateratzeko oztopo ere badela. Gure zentzumena lausotzen duen laino itxi bat bezala, potoa betetzen duen harea, egungo Halloween “berria” betiko Arimen Gaua dela ikustea oztopatzen diguna, edo udazkeneko bero arrunta klima aldaketarekin nahastera garamatzana.

Bigarren luzean, Boliviako gobernuburu bati entzundakoa berreskuratu nahiko nuke: «Sustrairik ez duenak, hegorik ez du». Gure baheak ez badaude milurteko luzez landuriko jakintzan oinarrituta, jai dugu hegan egin nahi badugu, ezer aldatu nahi badugu. Bistan da bahe mota askotarikoak baliatu behar ditugula ingurunea interpretatzeko, baina kontuan izan behar dugu, filosofia irakaslearen potoak bezala, gure interpreta-

tzeko gaitasunak muga bat duela. Ultrakomunikazioarekin bat heltzen zaigun munduko hiritarraren kultura, harea bezain arina, etengabe pasatzen zaigu potoa, eta, harri sendoak garaiz sartu ezean, harea besterik ez dugu izango.

Asteon, euskal kulturaren topaketa garrantzitsu bat dugu Durangon, sustraiak botatzeko aukera ona, nahiz eta espainiar konstituzioaren ospakizuna baliatu horretarako. Gogoratu nahiko nuke, hementzi urte egiten direla, Durangon bertan, ospakizun horren aurka ikasle batzuek abenduaren 6an herri eskolak antolatu zituztela. Gerora beste ikastetxe, instituzio eta lantokietara hedatuko zen hegalkada, egutegi propioa desobedientziatik eginez. Hain zuzen, abenduko lehen astean Euskararen Eguna eta Laboa eta Leteren heriotzen efemerideak ditugu. Datu gisa uzten dut, hegan interpretatzeko, Azokaren egutegia apika berregokitze.

«Eta orain, beteta al dago potoa?». Aho batez «baaaaaai» luze batekin erantzun zuten ikasleek orduan, eta filosofoak, kafe katilu bi hustu zituen potoan. «Aleak ale, beti dago tartea lagun batekin kafe bat konpartitzeko!». •



Harri sendoak aurrez jarri ezean, hondar arinak garrantzizkoa kanpoan uztera eramango du. GAUR8

{ koaderno } Iker Barandiaran

Sorkuntza plazaratzeko erakusleihoak babestu

Durangoko Azoka begi bistan dago, ezinbesteko ekimena euskal kulturaren biziraupenerako (halako gordin!); gero eta gehiago, gainera. Hori desagertuz gero, izugarrizko kaltea eragingo lieke bai argitaletxei, bai diskoetxei bai zuzenean sortzaileei eurei ere. Iraganean, beste inon euskal kultura erakutsi eta saldu ezin zitekeen, hil ala biziko ekimena zen, funtsezkoa. Gerora, agintek kulturaren presentzia behintzat baimendu zuenean, erakusleiho papera zuen Durangoko elizako atartetik leku zabalago batera mugitu zuten plazagune erraldoiak. Baina bitarte horretan gauza asko aldatu dira, izugarri, eta lehen urteetan kultura saltzeko aukera erraldoia zena, gaur egun ia urteko bakarra bihurtu da tamalez. Euskal kulturaren sorkuntza zati oso esanguratsu bat, ia oharkabean, abendu hasierara begira-begira dago halabeharrez. Orain dela urte batzuk hainbat eta hainbat sortzailek oraindik bizkarra ematen zioten Durangoko to-paketari, baina horietako gehienek, errealitateak berak bultzatuta, amore eman behar izan dute.

Kultura gero eta gutxiago kontsumitzen da; edo hobe esanda, gero eta jende gutxiago dago prest kulturaren truke ordaintzeko. Iraganeko batzuen gehiegikerietatik beste muturrera pasata, gaur egungo kontsumitzaile askok ez dute kulturaren sormen lana inola ere aintzat hartzen, ezta onartzen ere. Ez dute hala esango, baina hala jokatzeko dute praktikan. Hori horrela izanik eta tamainaz eta biztanlez txikia den Euskal Herri honen mugak ezagututa, orainari eta zer esanik ez etorkizunari begira ezkor dira gure arteko sortzaile eta eragile asko.

Nik neuk –beste askok bezala– azoka barrutik zein kanpotik ezagutu izan dut. Egona izan naiz sortzaile-eragile-saltzaile gisa urte gutxi batzuetan; eta, baita ere, urte gehienetan, ikusle-erosle gisa. Aukeran dibertigarriagoa da saltzaile-erakusle aritzea. Baina, kanpotik azokara joateak norbera estresatzeko ezaugarriak izan baditzaie ere, xarma berezia dauka niretzat, gure herrian ekoizten den sorkuntzaren lagin garrantzitsu baten lekuko izateak harrotasun sanoa gehitzen didalako, topagune ia errepikaezina delako –zer esanik ez, Facebook-a ez dugunontzat–, eta aipatutako arrazoi horien guztiengatik Durangon batzen dena ekimenaren eta sorkuntzaren ospakizuntzat ere har daitekeelako.

Hara joaten naizen guztietan poltsa beteta ekartzen dut; behar ditudan eta ez ditudan ekoizpen ugariarekin. Hori esanda, lerro artean argitu beharra dago poltsak tamaina askotakoak izan daitezkeela, eta hori baino garrantzitsuago kontsumoaren eta kulturaren ikuspegitik oso zaila dela banatzea zer den beharrezkoa eta zer ez. Pertsonaren, pertzepzio pertsonalen eta momentuen arabera izan daiteke hori. Harira itzulita, urtero etxera heldu ahala badakit eskuratutako ekoizpenetako batzuek hurrengo urtera arte poltsa berean jarraituko dutela. Hor daude oraindik. Eta jakin badakit aurten ere gauza bera egingo dudala. Baina horrek ez dit inongo arrangurarik sortzen, alderantzizkoa baizik. Horien artean badira irrikaz erositakoak, militantzia edo elkartasunak bultzatuta lagundu nahiaz, konpromiso baten bat eta, zergatik ez, baten batzuk txiripaz ere.

Esan bezala, tokatu izan zait mostradorearen beste aldean egotea ere. Ez zait ahaztuko, esaterako, “Putz” aldizkaria-

Beti poltsa beteta ekartzen dut; behar ditudan eta ez ditudan ekoizpen ugariarekin. Eta badakit batzuek poltsan jarraituko dutela hurrengo urtera arte

ren eta Apokaliftin argitaletxearen sasoian argitalpen horiek aurrera ateratzeko bizi izan genuen hasierako lotsa, ausardia eta ilusio nahasketa. Ez zen errazena euskararen eta euskal kulturaren testuinguru neurtuan literatura, pornografia, zirikatzea eta lerratu ezineko pentsamendu askea koloretako azalarekin euskaraz batzen zituen ekimen baten lehen pausoak eman eta egonkortzeko ahalegina egitea. Horrek guztiak ez zeukan ez preziorik ezta ordainik ere, eta, zerotik hasi ginenez, lorpen guztiak ziren itzelak guretzat, baita Durangoko Azokan gure presentzia bermatzea ere. Eta, jakina, han izan ginen, Euskal Herriko beste leku askotan bezala guk pertsiana itxi genuen arte, batzuetan zarata handia aterata eta beste batzuetan apalago.

Hau guztia esanda, ez dut ahaztu nahi Durangoko Azokan islatuta ez dagoen kultura ugari dagoela Euskal Herrian. Baina, hala ere, ezinbesteko hartzen dut plazagune hori aintzat hartu eta sostengua ematea, sortzaile, kontsumitzaile, euskaldun edo kultura zale garen heinean. •

«Oxfordeko ingeleseko hiztegiak ‘cassette’ hitza orain bizpahiru urte kendu zuenean, guk egunero-egunero erabiltzen genituen»

Barroteen artekoaz mintzo da Markel Ormazabal (Donostia, 1982) “Hemen naiz, ez gelditzeko baina” bere lehendabiziko liburuan. Kartzelaldiaren kronika begien pare eduki dugu elkarrizketa osoan. Hizkera argi eta zehatzarekin, kartzelari, soziologiari, migrazioari, musikari eta egoera politikoari atera die punta. Denbora, eta beraz bizitza, lapurtzeko eraikitako espetxeari partida irabazi dion ziurtasunarekin, gainera.

Kartzelaldia baliatu zenuen zure lehen liburua idazteko. Bai, espetxean idatzitako testuak dira eta kartzelari buruzkoak gainera. Beti eduki dut nagoen tokia ondo ulertzeko premia, baita kartzelan ere. Idazketa bera ariketa bat izan zen.

Ikasketei ere eutsi zenien. Argi nuen kartzelan eman beharreko denborari etekina atera behar niola eta etekin horren parte ikasketek izan behar zutela. Kartzela zigorraren neurria denbora da, eta denbora hori neurtu egiten da, eta, Joseba Sarriionandiak esan zuen bezala, denboraz singularrean mintzo bagara ere, denbora asko eta askotarikoak dira eta nork bere denbora du. Presoaren borroka handienetakoa da kartzelak ezarri nahi dizun denbora-diziplinari zuk beste denbora-diziplina batekin erantzutea, zurearekin.

Soziologian lizentziatu eta Aztiker jendarte-ikerketan espezializatutako enpresan aurkitu duzu lana. Bai, sekulako sorpresa izan zen ikasten ari nintzen horretan lana aurkitzea. Bertigoa ere izan nuen, lanean hasteko azkarregi zelakoan, baina inguruko panorama ikusita animatu egin nintzen. Ikasten ari naiz lanean ere. Ikaskuntza etengabekoa da, zentzu horretan oso eroso sentitzen naiz: esperimentatzeko aukera handia dago.

Parte hartzea sustatzea da zure egiteko nagusia.

Bi lan lerro ditu Aztikerrek: bata azterketa edo ikerketa soziologiko ohikoena-edo, eta, bestea, partaidetza herritarra. Azken horretan nabil, eta herri partaide-tzarako proiektuak diseinatu eta dinamizazio lanak egiten ditugu. Askotariko gaien inguruan ari gara, baina, komunitatea proiektuaren erdian kokatzen saiatzen gara beti, prozesuaren amaieran komunitatearen ahal-duntze bat bilatzen dugulako. Beti ez da lortzen; proiektuaren iraupenari lotuta egoten da maiz helburua erdiestea edo ez.


Lasarte-Orian Anitzen Sarea osatzen ipini dituzu ahalegi-nak azkenaldian. Udalak ikerketa egin zuen eta mahai gainean jarri zituen datuek harridura eragin zuten, izan ere, herritarren %56,2 da soilik Lasarte-Orian jaioetakoa. Orotara 70 jatorri eta kultura baino gehiago daude 18.000 biztanleko herri txiki honetan; hizkuntzak, gainera, are eta gehiago dira.

Gizarte egituraren argazki erreala ateratzeaz gain, aniztasuna beste modu batean lantzeko beharra sentitu zuen Udalak eta horretan dihardugu. Aniztasuna aberasgarria izan daiteke, betiere lanketa egokia egiten bada. Lanketa hori, gainera, ezin du erakunde batek bakarrik egin, komunitate askotarikoen artean “aniztasuna”, “migrazioa” edota “jatorria” bezalako kontzeptuen inguruko diskurtso eta ulerkera ahalik eta bateratuena bultzatu behar da. Eta horretarako osatu genuen Anitzen Sarea: komunitate, elkarte edo norbanako horien bilgune izateko.

Elkar ezagutza da lehendabiziko pausoa, ezta? Oinarria hori da. Elkar ezagutarik gabe ez dago elkarlanik, eta elkarlanik gabe nekez lortuko dugu kultur arteko harremanik. Ordura arte elkar ezagutzen ez zuten bizilagunek elkar ezagutzea ahalbidetuz, sinergia oso politak sortu dira eta modu autonomoan ari dira

dagoeneko lanean. Nik esango nuke kultur aldaketa ematen ari dela Lasarte-Orian. Mundu ikuskera eta bizi eremu oso desberdinak izanik, naturaltasunez ari dira aldatzen komunitateen arteko harreman eta mugak. Bertatik bertara ikustekoa izaten ari da.

Zuk zeuk ere asko ikasiko zenuen, ezta? Komunitate berean bizi behar badugu, hori elkar errespetutik eta elkar ezagutzatik pasatzen da, eta, ondoren, sinergia horiek edo espazio komun horiek bilatzetik. Beti pentsatzen dugu gure kulturara ekarri behar ditugula eta ez da horrela, espazio komunak sortu behar dira. Zurea errespetatzen eta zuk besteena errespetatzen duzun heinean, batzuetan haiek etorriko dira gurera eta beste batzuetan gu joango gara haienera, baina eraginkorrena biona edo askotarikoa izango den espazioa sortzea da. Anitzen Sarea erdibideko aukera hori da, interakzio bide hori aurkitzeko



«Justizia ala legea, horixe da dikotomia eta hor dago askatu beharreko korapiloa»

tresna. Betiere ahaztu gabe euskal herritarrek zein egoeran aurkitzen garen gure kulturari dagokionean, eta, ondorioz, euskal kultura eta euskara prozesu hauen erdigunean kokatuz.

Hernanin, aldiz, gazteekin ari zara lanean.

Udalak gazteriaren inguruko azterketa egin nahi zuen eta ikerketa modu desberdinak erabiltzen ari gara azterketa hori egiteko. Prozesua gazteena euren izan dela esan dezakegu gainera, Hernaniko askotariko gazteak dau-
de-eta dinamizazio taldean.

Askatasuna berreskuratu eta berehala musikari eutsi diozu berriz.

Bai, sortu, hala ere, musika gutxi sortu dugu aspaldian. Kartzelara sartu aurretik Adikune taldean egiten genuena gogoratzen saiatzen ari gara oraindik. Eta hau ez da bizikletan ibiltzea bezala [barreak], gitarra jotzen eta kantuak nolakoak ziren ahaztu egiten da,

batik bat guk bezala musika inoiz idazten ez baduzu! Grabazioak jarri eta belarritik tiraka saiatzen ari gara. Itxi gabeko fase baten zurrumbiloan gaudela sentitzen dugu. Kartzelan sartu aurretik bizpahiru kantu grabatu genituen, baina oraindik orduan idatzitako batzuk esku artean ditugu; horiek ehundu eta grabatu nahian gabiltza orain. Fase hori ixtean ikusiko dugu zer egin.

Musikak lagundu al dizu espetxealdian?

Bai, noski. Musikarik gabe ez dakit zer izango zen kartzelaldia, ezta bizitzako beste edozein espazio, momentu edo dena delako... CDekin funtzionatzen genuen, baina baita kaseteekin ere. Kideek urteetan zehar metatutako ondasun apurrak hor geratzen dira eta maiz musika da ondasun bakarrarenetakoa. Oxfordeko ingeleseko hiztegiak “*cassette*” hitza orain bizpahiru urte kendu zuenean, guk egunero egunero-egunero erabiltzen genituen. Kirola egiteko *walkmana* soinean ibiltzen ginen, milaka buelta emandako zintekin. Egunero-egunero entzuten nuen nik musika. Ez dut ulertzen bizitza musikarik gabe, eta, ondorioz, ezta kartzela ere. Ihesaldi momentu bat zen niretzat, ninduten tokitik kantura egiten nuen salto.

Idazten ere jarraitu al duzu?

Idazten jarraitzen dut orain ere, kartzela ahaztuta, hori bai. Beste idazketa mota bat da: zutabegin-tzan, testu soziologikoak idazten... aritzen naiz. Esku artean badut beste proiekturen bat, baina oso biluzik dut oraindik, eta egunerokotasunaren zurrumbilotik irten behar dut horri behar bezala eusteko.

Kartzelak asko eman dizu?

Gehiago kendu dit, baina ez naiz barruan egin dudana damu. Nik uste hori badela beste beldur bat, kartzelatik irtendakoan atzera begiratzea, alegia. Kanean zaudela berriro, atzera begiratu eta preso izan zaituzten aldia «nik denbora ondo baliatu dut» esatea asko da. Bestela hutsunea eta zulo beltza aurkituko nituen. Kartzelak bertuterik balu, bakarra esango

nuke: norbera ulertzeko, norberaren muga eta ezintasunak ulertzeko leku aproposa da. Dena den, argi gera dadila kartzela kentzeko egina dagoela, ez emateko.

Oso gazte ezagutu zenuen kartzela.

Aita kartzelan bisitatzea egokitu izan zait, eta, gerora, 19 urterekin, Alcala Mecoko gazte modulua ezagutu nuen. 24 urterekin, berriz eraman nindutenean, sorpresaz hartu ninduen kartzelak. Enegarrenez itzulita ere, sorpresaz hartzen duzu. Izu, kezka eta urduritasun berdinekin.

Jarrai-Haika-Segi sumarioaren harira sei urteko espetxe zigorra konplitu duzu Segi gazte erakundeko kide izateagatik. Orain gutxi akusazio berdinen pean epaitutako 40 gazte absolbitu egin dituzte. Beste 28 epaitzen ari dira une honetan. Zer espero duzu?

Esperantzarik ez dut behintzat. Kartzelan beti pentsatzen nuen: «Beno, nik sei urte egin ditut baina ea gu garen egoera honetan aurkitzen garen azkenak». Sekulako tristezia sentsazioa izan nuen, ordea, kartzelatik atera nintzenean. Astebetera Erretereriako hiru gazte atxilotu zituzten eta bi hilabetera Donostiako “herri harresia” eratu zen; kartzelatu behar zituztenen artean kuadrillako lagunak nituela eta *dejà-vu* bat izan zen.

Gerora, 40en absoltzioarekin sentsazio horrekin hautsi zuen aldi batez. Ez ginen nahi bezain azkar iritsi, baina iritsi ginela uste genuen. Oraingoekin, baina, esperantza gutxi daukat berriz ere. Audientzia Nazionalaren logika politikoa ulertezina da maiz, eta nire ustean absoltzioak ez zion erantzun erabaki politiko bati, epaimahaiak une horretan zituen behar juridikoei baizik. Zein tribunal egokitu zaien ikusita, are esperantza gutxiago daukat. Eta are eta gutxiago herri honetako hainbat alderdik halako epaiket-
ten aurrean duten jarrerarekin. Lotsagarria eta bere puntuan bel-
durgarria iruditzen zitzaidan Er-
tzaintza hain azkar bidaltzea Loiolara. Hortxe dugu herri hone-
tan gaingaitu beharreko langa



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

MARKEL

ORMAZABAL


SAILKAPENETATIK IHESI

Erlojuaren hormak erausten temati,
musikari sartu eta soziologo eta idazle
irten da espetxetik. Huntaz eta hartaz
solasean herdoildutako mundua edertu du.

handiena. Mundu zabalean ez da egon gurea bezalako egoera batean izanik unean-unean ezarrita zegoen legea errespetatuz eraldaketarik aurrera eramane duen herrialderik. Ohartuko al gara?

Eta etorkizuna?

Espazio soziopolitiko zabala ohar-tarazi eta planto egiten behar dugu. Justizia ala legea, horixe da dikotomia eta hor dago askatu beharreko korapiloa. Desobedi-entzia eta “herri harresien” dinami-ka oso eraginkorra da horretarako, oso agerian uzten baititu kontraesanak. Oraindik ez diogu neurria hartu sortzen duten lurri-kara politikoari. Donostian 800 geunden, baina hurrengoan 3.000 bagaude zer gertatuko da? Ezinezkoa al da Euskal Herria be-zalako herri batean 3.000 lagun biltzea halako injustizia bat sala-tu eta halako jarrera bat defendatze-ko? Nik uste egingarria dela, eta gustatuko zait ikustea une ho-rretan Ertzaintzak zer egiten duen jendetza horren aurrean.



«Ninduten lekua ondo ulertzea ahalbidetu dit liburua idazteak»

Liburu itxura hartuko zutelakoan idatzi zenituen «Hemen naiz, ez gelditzeko baina» lanean jasotako testuak?

Ez, inolaz ere ez. Kide batek inbutuaren metafora erabiltzen zuen espetxeaz hitz egiteko. Janariarekin lotzen zuen berak, sartzen zarenean edozer emango zenuke sagardotegi menu bat jatearren. Denbora pasa ahala, baina, inbutuaren zati meha-rean aurkitzen gara eta bi arrautza frijitu-rekin ere konformatuko ginateke. Sorme-narekin ere halako zerbait gertatu zait niri. Iritsi nintzenean hau, hori eta bestea egin nahi nituen, baina inbutua estutuz joan eta hauxe da egin dudana. Ziega kartzelari buruzko liburu eta paperez beteta nuen. Kalera irteteko urte eta erdi falta zenean, informazio horri guztiari aterabide bat eman behar niola erabaki eta testuak idaz-ten hasi nintzen, formatu argirik gabe.

Bada, hala ere, zure kartzelako egonaldiaren nolabaiteko kronika.

Nik *collagea* dela esango nuke, baita aza-lak justizia handia egiten diola barruko edukari ere. Ez nuke esango nire kartzela denboraren kronika denik. Ez dago apenas

lehen pertsonan idatzita, baina, noski, ba-ditu bizitako pasarteak. Finean, ikuspuntu kolektibo batetik egindako ariketa perso-nala da, ninduten lekua ondo ulertzea ahalbidetu didana. Espazioak beraien arte-an nola lotzen ziren ulertu ahal izateko ariketa.

Musika izan duzu bidelagun etengabea.

Melomano hutsa naiz eta kartzela mila modutan defini daitekeen arren, niretzako kartzela izugarrizko ezintasuna da. Senide eta lagunak hutsuneaz gain, musikari lo-tuta sentitzen nuen nik ezintasun hori be-reziki; gogoko nuen musika lortzeko zail-tasun handiak izan ditut, eta zer esanik ez musika tresnak lortzeko. Gure inguruan beste presoek bazituzten gitarrak, baina euskal presoek beti izan dugu aukera hori ukatuta. Sei urtez hamaika eskari egin arren, ez dut gitarra bakar bat ere izan. Ocaña I espetxean zorte apur bat eduki ge-nuen musika lortzeko garaian, kartzelak zerbitzu minimo bat eskaintzen zuelako, eta, noski, presoek beste bide batzuk ere arakatzen dituzte, baina ez inoiz zuk nahi zenukeen bezainbeste. Liburuan, testu ba-

koitzari abesti baten zatia edo titulua jarri diot izenburu gisa. Musika, beraz, *collage* hori itsasteko erabili dut. Oroimen ariketa bat izan da, izan ere, bost urte eman ditut hautatutako abesti gehienak entzuteko aukerarik gabe. Keinu oso kontzientea da.

“Hemen naiz, ez gelditzeko baina”. Izenburua bera ere Lisabö taldearen abesti batena da.

Lisabören kantu horren izenburuan ezin hobe adierazten da kartzelan sentitzen nuen hori; bertan ninduten, baina bertan geratzeko asmorik ez nuen. Era berean, ze-harka bada ere, Joseba Sarrionaindiaren “Ni ez naiz hemengoa” liburuari halako keinu bat egiten diolakoan nago; izan ere, liburu horri asko zor dio nireak.

Liburua idazteko asko irakurri duzu, beti baina, espetxeen inguruan. Ez zenuen errealtate horretatik ihes egiteko beharrik?

Kideek maiz esaten zidaten hori, arraro ere begiratzen ninduten [barreak]. Haien us-tez, zama gehiago jartzen nuen bizkar gai-nean. Hasiera batean zertarako jakin gabe bazen ere, espetxeen inguruko bibliografia

pilatzen joan nintzen. Testu batek bestera eramaten ninduen, aipatzen ziren errefe-rentziak jarraituz, eta, noski, kanpoko seni-de eta lagunak mareatuz. Kanpoko aliatu edo laguntzarik gabe ezinezkoa da horrela-ko lan bat espetxean egitea. Ez da erabate-ko kronika eta ezta espetxearen gaineko azalpen soziopolitiko ere. Espetxea ulertu ahal izateko elementu desberdinak jarri di-tut orrien gainean eta norberak tiraka sa-kon dezake bere definizioan eta ulerkeran.

Durango iristear da eta liburuaren aurkezpenearekin buru-belarri ariko zara, ezta?

Testuek musikarekin lotzeko aitzakia ematen dutenez, ihes egin nahi diet ohiko aurkezpen konbentzionalei eta beste ere-du batzuk bilatu ditut. Beran, adibidez, Borrokan taldearekin, ikaragarri gogoko dudan talde batekin, aurkezpen perfor-matiboa egin genuen Kaxerna gaztetxe-an. Aste honetan bertan, berriz, kartzelan idatziak genituen testu zenbaitzuetan oi-narriturik “Burdin-hariak eta plastikozko goilarak (eta maitasun lubrikatua)” gogo-eta saio musikatua abiatu dugu Oier Gon-zalez lagunak eta biok.

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:



GAUR8

Nekazaritzaren «iraultza berdearen» itzal luzea

Herritar xumeok elikadurak gure organismoan zer-norainoko eragina daukan ez dakigula ageriko gauza da. Etengabe errepikatzen zaigu elikadura “orekatua” dela egokiena, baina oso gutxitan aipatzen da ekoizpen ereduak zer eragin duen ekuazio horretan. Nekazaritza industrialaren “sorreratik” 70 urte joan dira jada, eta ekoizpen eredu honek sortu dituen ingurumen eta osasun kalteak gutxika ezagutzen bagoaz ere, substantzia kimikoekiko dependetzia izugarria duen eredu hori bera da, oraindik ere, mundu osoan zehar elika-

gaiak ekoizteko modu zabalduena. Naiz eta ebidentziek bide okerretik goazela azaleratzen duten. Adibide garbiena organokloratuek ematen dute: duela ia 40 urte debekatu bazen ere organokloratuak nekazaritzan erabiltzea, gaur egunera arte luzatu da Kutsatzaile Organokloratu Iraunkorren (KOI) eragina. Azterketa zientifikoek azaleratzen dutenaren arabera, gainera, eraginak bere horretan jarraituko du datozen hamarkadetan ere.

Organokloratuak substantzia kimiko sintetikoak dira. Beraien ezaugarriengatik, ingurumenean oso iraunkortasun luzea daukate. Ez dira uretan disolbatzen, bai, ordea, gantzetan. Horren ondorioz,

kate trofikoan zehar metatuz doaz, kate-begi guztietan eraginez eta, batez ere, katearen bukaeran dauden organismoetan (esaterako, gizakiak) kalte larriak sortuz. XX. mendearen erditik aurrera, izen txarreko “iraultza berdearen” eskutik, pozoi organokloratuen milioika tona askatu ziren ingurumenean. DDTa eta beregandik eratorritako DDEa, HCBak, PCBak, HCHak (hauetako bat da lindanoa)... neurri gabe bota ziren XX. mendeko 40ko hamarkadatik 80. hamarkadara bitarte.

Rachel Carson idazlearen “Udaberri isila” liburu entzutetsuak piztu zituen alar-mak, 1962an. Hamar urte geroago, 1972an, DDTaren nekazaritza arloko erabilera de-

Organokloratuek osasunean duten kalteen zerrenda luzea da: neurotoxikoak dira, sistema immunitarioa kaltetzen dute, hormonon funtzionamendua aztoratzen dute, ugalketa sistemari eragiten diote, minbizia sortzen dute...

Duten iraunkortasunarengatik eta biometagarriak direlako izadi osoan zabaltzeko gai izan dira. Ipar poloko inuitak dira horren adibide: inoiz PCBrik erabili ez duten inuitek daukate substantzia honen kutsadura maila altuena munduan

bekatu egin zen Ameriketako Estatu Batuetan (Estatu espainolean 1977an debekatu zen nekazaritzarako, nahiz eta 2008ra arte Huescako Montecinca enpresa kimikoak substantzia horrekin lan egiten jardun zuen, Zinka ibaia larriki kutsatuz).

JAIOZTATIK BERTATIK KUTSATUTA

Azterketa toxikologikoez erakutsi duteenez, organokloratuek osasunean duten eragin kaltegarrien zerrenda luzea da: neurotoxikoak dira, sistema immunitarioa kaltetzen dute, hormonon funtzionamendua aztoratzen dute, ugalketa sistemari eragiten diote, minbizia sortzen dute... Duten iraunkortasunarengatik eta biometagarriak izateagatik, gainera, izadi osoan zabaltzeko gai izan dira. Ipar poloko inuitak dira horren testigantza garbiena: inoiz ere PCBrik erabili ez duten inuitek daukate substantzia honen kutsadura maila altuena munduan. Arrazoa inuiten dietan dago: itsaskiak dira nagusi beraien plateretan. Egiaztatu denez, Ipar poloko arrain eta itsas ugaztunek PCB maila altuak daukate, eta inuitek, hauek jatean, beraien gorputza kutsatzen dute. Quebeceko Unibertsitateko ikerlari talde baten lanak (Dallaire eta beste batzuk, 2004) erakutsi zuen lotura zuzena dagoela bost urtera bitarteko inuit haurrek

pairatzen dituzten otitis eta arnasketa arazoen eta beraien amek odolean duten PCB kontzentrazio altuaren artean.

Izan ere, organokloratuek gizakia kutsatzen dute, amaren sabeletik hasita. 2010ean Llop eta beste batzuek Valentziako 541 haurdunekin burututako azterketan ikusi zen guztiek zeuzkatela DDT, DDE, HCB, HCH eta PCB kutsadura maila neurgarriak. Aurten, aldiz, Bartzelonako CREAL ingurumen epidemiologiako ikerketa zentroko ikerlari talde batek, Mireia Gascon buru dutela, lan bat argitaratu berri du erakutsiz haurtxoen kutsadura umetokian hasten dela, baina gerora ere pilatuz doala. 1997an hasi eta 2011ra arte, Flix (Katalunia) eta Menorcako bi giza talde oinarri hartuta, organokloratuen bilakaera aztertu dute, amaren sabeletik hasi eta umeek 14 urte bete arte. Ondorio asko ateratzeko balio izan du lan honek, besteak beste, amak bere kutsatzaile zama transmititzen diola haurtxoari, bai zilbor

hestearen bitartez bai edoskitzean emandako esnearen bitartez (ikertzaileek azpimarratzen dutenez, baina, honek ez du esan nahi edoskitzea kaltegarria denik, dauzkan onurak kalteak baino garrantzitsuagoak dira-eta). Bizitzaren lehen lau urteetan, organokloratuen kopurua nabarmen hasten dela ikusi dute, berriz ere edoskitzearen eragina nabarmenduz (izan ere, esnea da amak “deskontaminatzeko” duen mekanismoetako bat...). Jaiotzetik 14 urte bete arte, kontzentrazioak txikitzen direla ikusi dute, baina hori gorputzaren bolumena handitzeari egozten diote, kopuru absolutuak, kasu guztietan, handitu egiten baitira.

Esan bezala, amaren esnea jaso zuten umeek organokloratuen kopuru handiagoak erakutsi dituzte, baina edoskitzerik izan ez zutenetan ere, kutsadura pilatuz joan direla ikusi dute. Horrek erakusten du organokloratuak jasotzeko beste iturri batzuk ere badaudela, eta dieta jartzen du-

te ikertzaileek lehen lerroan. Ikerketaren beste ondorio interesgarrietako bat honakoa izan da: zenbait organokloraturen kutsadura iturriak desagertu direnean, hauen kopuruak desagertuz joan dira umeen gorputzetan. Flixeko umeekin ikusi da hori; bertan, HCBak ekoizten zituen enpresa kimikoak bere prozesuak hobetu ditu, kutsadura iturria desagerraraziz.

Organokloratuak debekatu zituztenetik hamarkada asko pasa badira ere, umeek konposatu hauek pilatzen jarraitzen dute. DDE eta PCBen kasuan, gainera, kopuruak handiagoak dira nerabezaroan jaiotzan baino. Organokloratuek osasunean duten eraginari erreparatuta, ikertzaileek nabarmentzen dute arreta berezia jarri beharko litzatekeela kutsadura iturrietan. Iturri nagusia, esan bezala, elikadura da.

Debekutik 40 urte pasa eta gero, organokloratuez ari gara oraindik ere. Beste 40 urte beharko ote dira gaur egun oraindik ere baimenduta dauden herbizida, pestizida eta bestelako pozoien eragin kaltegarriez hitz egiteko, edo behingoz ekoizpen ereduaren inguruko eztabaida mahai gainean jarriko dugu?

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura
Ekologikoaren Kontseilua

Elektrizitatea

Maider lantzi

Oroitzen naiz ze lotsa sentitu nuen denda batean erosketak egiten ari nintzela lehenbiziko aldiz mugikorrera deitu zidatenean. Interesantearena egiten ari nintzela iruditzen zitzaidan. Lagunartean ere gogoan dut komentatzen genuela ea ze behar zegoen kalean telefonoz aritzeko, ezin al zen dei hori etxean egin eta lasai atera.

Ez dira hamar urte pasa eta arraroa da trenean, autobusean, edozein txokotan burua altxa eta begiak pantailan itsatsita ez dituen inor ikustea. Bi begik topo egin ez gero, berehala jaitsiko dugu begirada, sortzen den txinpartak erretzeko beldurrez. Normala pantailaren bati so egotea

da, edozer izanda ere bertan agertzen dena, parekoarekin hizketaldi bat izaten ari bagara ere, begiak begietan ez, pantailan pausatzen ditugu, adibidez nazkatuta gaituen telebista saio horretan. Etxean gertatzen zait. Kexatu eta erraten dut ez zaidala begiratzen ez didan norbaitekin solas egitea gustatzen. Erantzuna, «fijo begira» nik jartzen ditudala deseroso eta elkarren aurpegiak aski ezagunak ditugula!

Haur eta nerabeen guraso eta irakasleen kezka nagusietako bat bilakatu da sakelako aparatu txikia. EU Kids Online proiektu europarrean adin txikikoek Interneten dituzten aukera eta arriskuak ikertu dituzte eta 2011tik 2014ra konektatzeko moduak izu-

garri aldatu direla konturatu dira. Orain beren egunerokoan hainbat lekutatik erabiltzen dute sarea eta horrek Internetarako sarbidea duten gailuek erabilera gero eta pribatuagoa izatea ekarri du. Azterketa horretan parte hartu duen EHUKo taldeko zuzendariak, Maialen Garmendiak, ondorioztatu du gurasoen inplikazioa gakoa dela eta alde onak eta txarrak azalduz txikitatik mundu honetan barneratzen laguntzea gomendatu die. Gauza guztiak bezala, berez ez baitira ez onak ez txarrak, neurria hartu behar. Eta, noizean behin, burua altxatu ingurukoei begiratzeko, makinaren elektrizitatea ona baita baina bi begien artean sortzen dena aunitzez hobea. •



Diana Cantero, lantoki duen Meltxor tabernan. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

infraganti DIANA CANTERO

Tatami gainera igo eta arerioak menderatzen artista da Diana Cantero donostiarra. Japonian jokaturiko Karateko Munduko Txapelketa irabazita agerian utzi du hori. Modu horretan kirolari batek eskura dezakeen lorpenik handiena erdietsi du eta bere ametsetako bat bete ere. Karatea oso kirol gogor eta bortitza da, baina Diana adeitsua, apala eta gertukoa da aurrez aurreko tratuan.

Hitzordua Donostiako Meltxor tabernan egin dugu, Dianak eta bere amak daramaten tabernan, hain zuzen. Hormak Dianaren argazkiz jositako daude eta apaletan irabazitako kopa batzuk ere ikus daitezke. 16.50ak dira eta barraren atzean lanean topatu dugu Diana, 17.00etan amaitzen da eta bere txanda. Guri jarri digu eguneko azken kafea (oso gozoa) eta horrekin amaitu ditu tabernan egin beharrekoak. Hori da eliteko emakume kirolari askoren errealitatea eta Diana ez da salbuespena.

Goi mailako kirolariak izanagatik emakume askok ezin dute kirolek bizi, eta, hortaz, lanarekin uztartu behar izaten dute (Dianak 10 ordu egiten ditu lan egunean). «Gizonen egoera erabat desberdina da. Gizonak, maila honetan, kirola egitetik bizi dira ia seguru, baina, emakumeok, aldiz, lan egin behar dugu gustatzen zaigun kirola praktikatu ahal izateko», azaldu du. Eta ez hori bakarrik, federazioak batzuetan bidaien zati bat ordaintzen dizkien arren, askotan, euren poltsikotik ordaindu behar izaten dituzte bidaiak ere, diru dezente xahutuz. Dianak, esaterako, 1.800 euro gastatu zituen Japonian jokatu berri duen Kara-

teko Munduko Txapelketan eta ordainetan 300 euro besterik ez ditu jaso. Baina, Munduko Txapelketa irabazita, bigarren lekuan geratzen dira gauza horiek guztiak Dianarentzat. Orain, lortu duenaz gozatu nahi du. Eta ez da gutxiagorako, izan ere, oso jende gutxi esan dezake zer baitetan munduko onena dela.

Japonian urrezko domina kolporatuta kirolari ororen ametsa bete du Dianak. «Horren atzetik lan ikaragarria dago. Entrenamendu asko, lan asko eta sufriamendu asko, baina horrek guztiak fruituak eman ditu eta oso pozik nago. Duela zortzi urte Donostian entrenatzen hasi nintzeanean horrekin amesten nuen, nahiz eta, noski, ezinezkoa zela pentsatu. Baina azkenean lortu dut», aitortu du.

Garaikur preziatua altxatzeko bi borroka irabazi behar izan zituen Dianak. Lehenengoa japoniar baten aurka, eta finala bera baina «gogorragoa» izan zela dio. Oso borroka lehiatua izan zen. Bi minutuko bi saio eta luzapena behar izan zituen finalera sailkatzeko. Gainera, aurkaria etxekoa izanik, zaleak ere alde zituen; hori bai, Diana ez zen kikildu. Aitzitik, egoera makurretan hazi egiten da. «Jendea nire aurka badago are eta gehiago motibatzen naiz eta nire onena ateratzen dut», argitu du. Azken pausoa xamurragoa izan zen. Haatik, finala ez zuen ondo hasi: aurkariak ezustean harrapatu eta erdi zorabiatuta utzi zuen kolpe bat eman zion buruan. Dena den, egoerari buelta eman eta barruan zuen guztia aterata borroka eta txapelketa irabaztea lortu zuen.

Horrelako lorpen batek ospakizuna merezi du eta ospakizunaren lehen zatia Japonian bertan egin zuen bertan zeuden karate munduko lagunekin. «Sayonara Party jaira joan nintzen. Txapelketaren ostean egiten den afari moduko bat da, eta bertan elkartu ginen txapelketako partaide guztiok. Jende askok errugbiaren 'hirugarren zatiarekin' alderatzen du eta primeran pasa genuen». Ospakizunaren bigarren zatia, aldiz, etxerako utzi zuen. Azken hori izan zen bereziena Dianarentzat. «Nire

familia oso harro dago nitaz eta horrekin geratzen naiz. Nire gertukoaren laguntza da garrantzitsua niretzat. Karatea ez da oihartzun handia duen kirola eta beraien berotasuna eta laguntza ezinbestekoak dira egunerokoan», kontatu du.

2014. urtea ez du berehalakoan ahaztuko Dianak. Izan ere, Munduko Txapelketaz gain, Espainiako bi txapelketa eta Europako beste bi irabazi ditu (Espainiako lau txapelketa, Europako beste lau eta Munduko Txapelketa bat dira, orotara, bere lorpen aipagarrienak). Gainera, urte osoan bi borroka baino ez ditu galdu. Argi dago, beraz, lortutakoa ez dela kasualitatea izan eta punta-puntako karateka dela. Gainera, oso momentu gozoa bizitzen ari bada ere, etorkizunean are eta momentu hobeak zain izatea espero du.

Karatearen barruan modalitate desberdinak daude. Dianak praktikatzen duena *kumite knock down* izenekoa da. Hots, aurkaria KO uztea da helburua. Hala ere, hori ez da ohikoena izaten eta normalean epaileek erabakitzen dute garailea nor den batak besteri emandako kolpeen arabera. Beste modalitate batzuk teknikoagoak dira, honakoa, aldiz, «bortitza» da. Testuinguru horretan, funtsezkoa da lehiak ondo hastea eta lehen kolpeak norberak ematea, alderantziz suertatuz gero borroka alda pa gora jartzen da eta. Aurkaria jotzeko orduan ere badaude jarraitu beharreko zenbait arau. Ukabilkadak, esaterako, bularretik behera jo behar dira. Alegia, ukabilkadak aurpegian jotzea debekatuta dago. Belaun eta hankekin, ordea, gorputz osoan jo ditzakete kolpeak, baita buruan ere. Tentsio handikoak izaten dira borrokak eta kontzentrazio handia eskatzen dute.

Kanpotik begiratuta oso kirol bortitza dela ematen du, baina berak ez du hala ikusten. «Egunerokoan estres handia izaten dugu eta barruan ditugun gauza negatibo guztiak ateratzeko eta gure beldurrak gainditzeko oso baliagarria da. Gainera, dena laguntasun giro batean egiten dugu. Nire buruarekin ondo sentitzeko be-

har-beharrezkoa dut karatea. Jen-de askok dio droga baten modu-koa dela eta ni ados nago. Ni orain ezingo nintzateke karakterik gabe bizi», onartu du. Halaber, karatean ikasiriko zenbait balore oso garrantzitsuak dira bere esanetan, «errespetua eta lanerako gaitasuna», kasu.

Txikitatik zuen borroka arte-
ren bat praktikatzeko desioa, bai-
na 18 urte bete zituen arte ez zu-
ten bat egin Dianak eta karateak.
Umea zela ballelean apuntatu
zuen amak (Dianak judoa egin
nahi zuen), eta, ondoren, igerike-
tan ere aritu zen, 17 urterekin
etapa horri amaiera ematea era-
baki zuen arte. Ostean, erabat
desberdina zen kirol bat probatu
nahi zuen, eta, egun batean, kara-
te eskola batera jo zuen. Bertako
kideen jotzeko moduak eta en-
trentatzeko erak erakarrita proba-
tzea erabaki zuen. Hastapenetik,
Pablo Estensoro goi mailako ka-
rateka donostiarra izan du bide-
lagun eta haren laguntza «ezin-
bestekoa» izan da iritsi den
lekura iristeko. Lehen urratsak
Altzan bertan eman ostean, Gas-
teizko Yin-Yang gimnasiora joa-
ten hasi zen (300 lagun inguru
daude bertan). Izan ere, garai
hartan Donostian ez zegoen mai-
la handirik eta beharrezkoa zuen
urrats hori egitea aurrerapauso-
ak ematen jarraitzeko. Oraindik
ere, asteen bi aldiz joaten da ha-
ra. Gainontzeko saioak Donos-
tian bertan egiten ditu. Entrena-
menduetan arlo desberdinak
lantzen dituzte. Alde batetik, bo-
rroka teknikak eta kolpeak, eta,
bestetik, alor fisikoari dagozkion
ariketak.

Baina entrenamendua ez da
karatekek zaindu behar izaten
duten alor bakarra. Pisuak ere
buruhauste dezente ematen die
zenbaitzuei. Emakumeen ka-
suan hiru kategoria baino ez
daude: 55 kilo baino gutxiago-
koa, 65 kilo baino gutxiagokoa
eta 65 kilo baino gehiagokoa.
Dianak bigarren multzoan lehia-
tzen du, baina bertan sartzeko
muga-mugan ibiltzen da beti.
Hortaz, sakrifizio handiak egin
behar izaten ditu txapelketak
gerturatzen diren heinean: ko-
rrika gehiago egin, saunara joan,
lehia aurreko azken egunetan ia-



Japonian jokaturako Karateko Munduko Txapelketan lehen postua eskuratu berri du Diana Cantero donostiarrak. GAUR8

ia jan gabe egon... Ahalegin ho-
rrek guztiak, baina, merezi duela
uste du, eta, halaber, txapelketa-
tan bere %100 ematen lagun-
tzen dio.

Egun, karate munduko errefe-
rente bihurtu da Diana. Hala ere,
bertan izandako lehen esperien-
tzia ez zen baikorra izan. Entre-
natzen hasi eta hilabete ingurura
izan zuen lehen borroka eta aur-
kariak bular inguruan emaniko
kolpeen eraginez lurtean geratu
zen arnasteko zailtasun ikaraga-
rriekin. Horrek, ordea, ez zuen
kikildu. Aitzitik, akuilu izan zen
berarentzat. Gogor entrenatzen
jarraitu zuen pixkanaka bere
maila hobetzeko asmoz, eta han-
dik urtebetera aurkari hori bera
garaitu zuen beraien arteko hu-
rrango borrokan. «Kirol honetan
burua da garrantzitsuena. Aur-
kariak kolpe bat eman eta sortu
dizun minean pentsatu beharre-
an aukera duzunean zuk zeuk
kolpe handiagoa emango diozu-
la pentsatu behar duzu, bestela
jai dago!», nabarmendu du.

Munduko txapeldun izatearen
ondorioz hedabideengandik
arreta handixeagoa jaso du.
Orain artean, ordea, apenas egin
diote kasu komunikabideek,
nahiz eta arestian aipaturiko
txapelketa entzutetsuak irabazi.
Horrek islatzen du zein den
emakume kirolarien erreality-
tea. Hona bere hausnarketa:
«Egia da agian garrantzi handia-
goa eman beharko lioketela he-

dabideek emakumeek egiten du-
gunari, baina, nire kasuan
behintzat, errealitya hori da
eta oraingoan leku batzuetatik
deitu didate gutxienez».

Kirol munduan egindakoak
baino oihartzun askoz handia-
goa izan zuen Dianak telebista-
ko *reality show* ezagun batean bu-
ruriko ibilbideak. Euskal Tele-
bistako «El conquistador del fin
del mundo» lehiaketako bedera-
tzigarren eta hamargarren edi-
zioetan parte hartu zuen. Lehen
urtekoa oso esperientzia polita
izan zen berarentzat. Sei duela
irabazi zituen eta finaleraino
iristea lortu zuen. «Ni experien-
tzia berri bat bizitzera eta irabaz-
ten saiatzera joan nintzen. Lehia
ikaragarri gustatzen zait eta ho-
rrek erakarri ninduen. Finalean
beste bi gizonezkoak nire aurre-
tik geratu ziren, baina gustura
geratu nintzen egindako ibilbi-
dearekin», adierazi du.

Halaber, ikusleek ematen du-
ten saria irabazi zuen eta horrek
esanahi berezia du Dianarentzat.
«Niretzat ikaragarria izan zen.
Horrek erakusten du jendeak zu-
re izaera eta lana baloratzen di-
tuela eta hori niretzat oso sari
handia da, agian, lehiaketa bera
irabaztea baino garrantzitsu-
agoa», zehaztu du. Lehen edizio
hartako partaideekin oso harre-
man ona egin zuen, eta, orain-
dik, tarteka, geratu ohi dira. Bi-
garren edizioko esperientzia,
ordea, ez zen ona izan. Parte har-

tzaileetako askok «beste helburu
batzuk» zituzten eta ez zen ero-
so sentitu. Beti esan ohi da oso
lehiaketa gogorra dela parte har-
tzaileek pairatu behar izaten di-
tuzten baldintzengatik (janari
gutxi, lotarako leku txarrak...),
baina Dianarentzat hori baina
askoz okerragoa da kameran
atzealdean gertatzen dena.
«Egun osoa gu haserretu nahian
aritzen dira, eta, gero, interesa-
tzen zaien zatia bakarrik atera-
tzen dute telebistan, adierazpen
konkretu batzuen atzean zer da-
goen erakutsi gabe. Eta, hala, hi-
tzen esanahia desitxuratu egiten
da sarritan», gaineratu du.

«El conquistador del fin del
mundo» saioan ateratzearen on-
dorioz jendeak kalean ezagutu
egiten du eta batzuetan geratu
ere egiten dute. «Ni ez nago ohi-
tuta horrelako gauzetara eta po-
za ematen du jendea zuregana
hurbildu eta gauza onak esateak.
Hala ere, denetarik dago eta bes-
telako komentarioak ere entzun
behar izaten dira», aitortu du.

Telebistan agertzeagatik bai,
baina kirol munduan jarraituri-
ko ibilbide arrakastatsuagatik
inork gutxi ezagutzen du. Ego-
ra kontraesankorra da inondik
ere. «Egia esan amorrua ematen
du telebista programa soil bate-
an agertzeagatik jendeak ni eza-
gutzea eta egunero praktikatzen
dudan kirola eta bertan lortu du-
dan guztia bigarren mailan gera-
tzea. Gainera, nik lorturiko
emaitzak lortu dituzten beste ki-
rolari batzuei askoz ere garrantzi
handiagoa eskaintzen dietela
ikusten dut, eta horrek ere min
ematen dit», kontatu du.

Dianak argi du «El conquista-
dor del fin del mundo» saioa
bere bizitzako beste esperientzia
bat baino ez zela izan eta bere
ohiko bizitzari ematen dio ga-
rrantzia. Momentuz, gustura da-
go egiten duenarekin eta etorki-
zuna karate munduarekin lotuta
irudikatzen du. Hori da benetan
betetzen duena. Bere palmaresa-
ri begiratuta lor daitekeen guztia
jada irabazita duela ematen du,
baina berak bere buruari erronka
berriak jartzen dizkio eta hobe-
tzen jarraitzeko helburua du. •

Mikel IBARGOIE

SARE@N

EUROPA Hauek dira astean sarean ibili diren zenbait hitz:

> Ez erreanimatu

Nel Bolten 91 urteko emakume herbeheretarrak oso garbi dauka bere heriotza ahalik eta duinena izatea nahi duela eta 15 zentimetroko tatuajea egin du bularrean bere nahia garbi adieraziz: «Ez erreanimatu. 91 urte baino gehiago». Hartara, egunen batean osasun larrialdi bat gertatzen bazaio, ez du nahi medikuek bere bizitzari modu artifizialean eustea. Herbeheretan eutanasia legezkoa da, baina baldintza oso zorrotzen pean. Hartara, Boltenek esan du ez dela fio eutanasia ondo aplikatuko diotenik eta horregatik garbi adierazi du bere nahia. Herbeheretan ohikoa da eutanasiaren alde daudenek lepoko bat eramatea nahi hori adieraziz, baina Boltenen hitzetan lepokoa ez da tatuajea bezain bistakoa.

> Txiotesiak

UEUk bigarren urtez antolatu du “Txiokatu zure tesia sei mezutan” lehiaketa. Egitasmoaren helburuak ikertzaile gazteen lana ezagutzera ematea eta beren artean sarea jostea dira. Aurten 46 ikertzailek parte hartu dute, horietatik %70 berriak. Unibertsitate askotatik iritsi dira txioak, bai Euskal Herrikoak eta baita kanpokoak ere, eta ikertalde ugariak parte hartu dute. Tesien jakintza esparrua zabala izan da, eta, parte hartzea, parekidea; 23 emakume eta 23 gizonetako, hain juxtu. Lehen saria Itziar Gonzalez-Diosentzat izan da, euskarazko testuen sinplifikazio automatikoari buruzko tesia laburtzeagatik. Bigarren saria Eneko Bidegainentzat izan da “Lehen Mundu Gerra ‘Eskualduna’ astekarrian” tesia kopia zaharretan zabaltzeagatik.

> Zaborra Ilargian

Asteon argitaratu den artikulu batean ezagutzera eman da gizakiak Ilargian utzitako objektuen zerrenda, NASAk berak egindakoa. Zabor bilduma bat da nagusiki, besteren artean, «gonbito poltsa bat», «pixa daukaten ontziak» eta «30 metro telebista kable» biltzen dituenak. NASAk zerrenda objektuok «babestearren» egin omen zuen, daukaten balio «historiko eta zientifikoa» tarteko, baina, zerrendaren osagaiak ikusita, nahikoa zabor arrunta da gizakiak Ilargian utzitakoa. 1967an sinatutako Kanpoko Espazioaren Itunak garbi esaten du Ilargiaren eta espazioko beste tokiaren «kutsadura kaltegarria» saihestu egin behar dela. Zerrenda ikusita, ez dirudi oso zorrotz bete denik itun hori.

> Marihuana

Youtuben sekulako harrabotsa sortu du adineko hiru emakume bizitzan lehen aldiz marihuana erretzen agertzen dituen bideoak. 24 orduan lau milioitik gora bisitari izan ditu. AEBetako zenbait estatutan marihuana legeztatu dute eta horrek asko aldatu omen du jendarteak kalamuaz duen pertzepzioa, zenbait ikerketek nabarmendu dutenez. Hartara, BBC telebista kateak esperimentua egin du zuzenean eta sekula marihuana probatu gabeko adineko hiru emakume jarri ditu kamera aurrean. Marihuana eman die erretzeko eta beren erreakzioak jaso ditu. «Guztia oso erraz joan da, oso eroso egon gara guztiok lan hau egiten. Zailena castingean inoiz marihuana probatu gabeko hiru emakume topatzea izan da».



KUTXATEKA.COM

«LASAI, MAITEA, EZ DA EZER IZANGO»

«Lasai, maitea, ez da ezer izango», eta amaren besoetatik zuriz jantzitako emakume horren besoetara pasatzen zaituzte. Eta eskuak oso hotzak dituela iruditzen zaizu. Besteak magalean hartzen zaitu, baina ez amonak bezala kulunkatzeko, buruz behera baizik. Ipurdiz gora. Eta or-

duan konturatzen zara zuriz jantzitako horientzat horixe baino ez zarela, ziztatu beharreko ipurdi bat, beste ipurdi bat. Sast! Argazkia 1942. urtekoa da. **Vicente MARTIN.** FOTO CAR FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA

Iratxe Esnaola
Informatika ingeniaria



Spotify: artistak aurka

Gaur arte, asko dira Spotify musika plataformatik euren abestiak kentzeko erabakia hartu duten artistak: Adele, AC/DC, El Último de la Fila, Placebo edota The Beatles (euren eskubideak dituzten erakundeen erabakiz). Guztiek, Spotifyk ez diela nahikoa diru ematen adierazten dute, Spotify euren kontura aberasten ari dela baieztatzen duten bitartean.

Bataila horretan sartu den azkenetakoa Taylor Swift abeslari, konpositore eta aktore estatubatuarra da. Bere abesti guztiak Spotify plataformatik desagertzea eskatu du, hain zuzen ere, "1989" izenburupean bere azken diskoa argitaratu orduko. «Musikak ezin du doakoa izan», nabarmendu du, baita honakoa gaineratu ere: «Ez dut nire lanarekin Spotify bezalako esperimendu bat finantzatzeko, sortzaile, konpositore, ekoizle eta artistei ez dielako dagokien konpentsaziorik eskaintzen».

Spotifyk berehala erantzun dio, bertako sortzailea eta zuzendari exekutiboa (CEO) den Daniel Ek suediarren eskutik. Bere ustez, Spotify eta gisako plataformek musikaren merkatuan abestiak doan banatzeak ("pirateria" gisa ezagutzen dena; baina kontzeptua ez da egokia) sortu dituen arazoei soluzioa ematen diete. Hori da, orokorrean, iTunes eta Spotify plataformen alde nagusia: lehenengoan abestiak eskuratu edo erosi egiten dira, bigarrenengoan abestia *streaming* bitartez entzuteko aukera dugu, abestia bera eskuratu gabe. Spotifyren argudioen artean, Taylor Swiftrek urtean, gutxi gorabehera, 6 milioi dolar jasotzen dituela plataformaren eskutik. Eta 500.000 erreprodukzioak 3.000-4.000 dolar sortzen dituztela. Aitortu dute, hori bai, Taylor Swiften kontura diru asko irabazi dutela.

Spotify 2006an Suedian sortu eta 2008an publiko egindako enpresa bat da, bere egoitza nagusia Londresen duena. Zenbakitan: 1.200 langile baino gehiago ditu, 40 milioi erabiltzaile baino gehiago eta 50 hizkuntza baino gehiagotan dago eskuragarri. Erabiltzaileak erregistratu egin behar du musika *streaming*

bidez entzuteko eta kategoria ezberdinak daude. Guztiz doakoa den kontua sortzen bada, abestien artean iragarki laburrak sartzen dira. Hilean 10 euro ordainduz, batetik iragarki laburrok desagertu egiten dira, eta, bestetik, abestiak Interneteko konexiorik izan gabe ere entzuteko aukera dago.

Bere zerbitzuak eskaintzeko eskubideen banaketa bat planteatzen du Spotifyk hitzarmenean. Artistek ez dute guztiz gustuko. Baina, ulertzekoa denez, zaila edo ezinezkoa ere bada eskubideen banaketa batekin artistak guztiz gustura egotea. Zentzu horretan, egia da artista eta taldeen zabalkundean laguntzen duen plataforma bat dela. Baina, era berean, musika *streaming* bidez entzuteko ohitura ere sortzen ari da jendartearen, abestiak erosi baino entzuteko aukera baliatuz. Musika kontsumitzeko beste modu bat da, argi dago, baina zenbait artistek euren diskoen salmentek egundoko jaitziera izan dute-

la egiaztatu dute. Eta Spotify diskoetxe handiekin dituen hitzarmenetan babes-ten dela diote, horientzat benetan onuragarria delako akordioa, bestelako artistentzat onura askoz ere txikiagoa den bitartean. Egia da publiko orokorrarentzat Spotify oso praktikoa eta aberasgarria den plataforma bat dela, baina egia da ere Spotifyk ezartzen dituela baldintza guztiak eta artistek ezin dutela ez euren sorkuntza-lanak zabalduko diren moduaren gaineko proposamenik egin, ez erabakirik hartu.

Hori guztia horrela, nire ustez, eduki kulturalak sarean modu azkar eta kasik doakoan banatzen diren garai honetan, Spotify baino malguagoa den sistema bat behar da. Negozio-ereduan Spotifyren norabide berean koka daitekeena, baina artisten eta sortzaileen uneko beharretara egokitzeke jarrera izango duena. Spotify desagertzea baino, hobe da existitzea, baina oraindik ez da artistak, erdizka bada ere, pozik egotea lortuko duen formularekin asmatu. •



Musika kontsumitzeko beste modu bat eragin du Spotify plataformak.

Marisol RAMÍREZ | A. PRESS

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:

EUSKAL HERRIA 1970-1990

Historia iruditan

Herrialdea eraldatu zuten bi hamarkada nahasi

Historia hurbilean zeharreko ibilbide fotografiko zoragarria,
"Euskal Herria 1870-1970. Ehun urte iruditan"
bilduma arrakastatsuen jarraipena



Bi liburu berri, biak ele bitan




5. LIBURUA

"Años turbulentos / Urte nahasiak"

Gertakizun politikoak, diktadura frankistaren amaierara hasi eta Aljerriko negoziazioetxeraino. Bi hamarkada, konpendio gabeko garaia politiko batek su eta garri markatu zituenak.

Abenduaren 6, larunbata
eta 7an, igandea



6. LIBURUA

"La modernización / Modernizazioa"

Aidarrilopenak kulturen, irakineko kultural eta artistiko, euskaraz eta euskal kulturaren banberitzea, eraldaketa soziala, koro balentriak...

Abenduaren 13, larunbata
eta 14an, igandea

GARArekin

12,50€
alea

Baita **Durangoko Azokan** ere!

HARPIDEDUNENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA: Bi liburuak **19,50** euro soilik

Erreserbak hilaren 2a, osteartea, 15:00ak baino lehen egin. **94 424 55 56** telefonon edo publibilbo@gara.net helbidean. Bidalketa gasturik gabe igorriko da.

